

# t tipi t tapa

368


2004ko otsailaren 19a • XXIV. urtea



## Elizondo-Aldude bidearen afera

04

Elizondo eta Aldude arteko bidea moldatzeko dirulaguntza hartu du Baztango Udalak Europatik. Beldun aldea Bizirik taldea proiektuaren kontra agertu da.



## Paxaka txapelketa azken txanpan

33

Hamar hirukotek parte hartu dute bosgarren paxaka txapelketan. Finalerdiak otsailaren 28an jokatu dira eta finala martxoaren 6an Irurritako Aranabian.

## 03 Dizdira taldea: Buruko eriei eta senideei laguntza



# BORTZIRIETAN IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



ARANTZA: Herri Eskola  
☎ 948 634 104



IGANTZI: Herri Eskola  
☎ 948 637 829



LESAKA: Irain E.P.  
☎ 948 638 006

- ✓ Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz
- ✓ Doan
- ✓ Jantoki eta garraio zerbitzuekin
- ✓ Integratzailea
- ✓ Teknologi berriez baliatuta
- ✓ Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan
- ✓ DBH, Batxilergoak eta LH bertako Institutuan



BERA: Ricardo Baroja E.P.  
☎ 948 625 019



ETXALAR: Landagain E.P.  
☎ 948 635 215



TOKI-ONA Institutua  
☎ 948 625 000

## TXIKIAK HEZITUZ HANDITU

*Izen ematea:*

**Haur eta Lehen Hezkuntza otsailaren 26tik martxoaren 5era  
DBH martxoaren 22tik 26ra**



## DATUAK...

- Ainhoa Arburua etxalartarra Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko langilea da, etxez etxeko zerbitzuan.
- Joan den urteko ekainean, gaitz psikikoak dituzten eriei eta beraien senideei laguntza emateko Dizdira taldea sortu zuen Bortzirietan, Felix Osés lesakarrarekin batera.
- Baztan, Bertizarana eta Malerrekoako interesatuei ere zerbitzua eskaini nahi diote. Horretarako bulegoa irekiko dute Donezteben apirilean.



Ainhoa ARBURUA Dizdira Elkarte

ARGAZKIA: J. IRIGOIENI

# «Jendeak uste baino depresio eta eskizofrenia kasu gehiago daude»

Aitor AROTZENA

**Zein da Dizdira elkartearen helburu nagusia?**

Gaitz psikikoak dituzten eriak eta beraien senideak laguntzea da, gehien bat gure helburua. Beharrak zein diren ikusi, eriei zeregina badutela erakutsi eta familiakoak lasaitzea izan ohi da gure lana. Egoera berean jende aunitz badela eta elkarri laguntzen ahal diogula erakusten diegu. Jendea sentsibilizatzea ere bilatzen dugu, izan ere, eskizofreniaren kasuan adibidez, eria bakarrik egoten da, jendeak baztertu egiten duelako.

**Bortzirietan sortu zineten, gero ANASAPS taldearekin elkartu eta orain eskualde osoari zerbitzua eskaini nahi diozue...**

Bai, hemen beharra bazela eta hasi ginen, baina laguntza behar da. Nafarroan duela 17 urte sortu zen elkarte horretara bildu ginen, gure helburu berberak dituelako. Hau da, buruko gaitza duten eriei eta senideei laguntzea. Beraingana bildu eta mendialde honetan delegazioa sortzea proposatu ziguten. Baiezkoa eman genuen joan den urteko urrian, diru-

**«Zuzeneko arreta eskainiko diegu buruko eritasuna dutenei eta bere senideei. Bertzetik, aisialdiko ekintzak antolatuko ditugu eriek margotzeko, marrazteko...»**

laguntzen aldetik dena lehenago jonen zelako eta beraien aurrekontuetan sartzen ginelako.

**Delegazio hori sortzeko lokalaren bila aritu zarete...**

Beraien aurrekontuetan sartu ondorekin lokalaren bila aritu gara. Bortzirietaz gain, Baztan, Bertizarana eta Malerreka hartu nahi dugunez, lekuri egokiena Doneztebe izan zela iruditu zitzaigun. Bizpahiru hilabetez esperoan egon gara. Alkateak lokal bat proposatu zigun, baina aitzinetik Mankomunitatearekin egon behar zuen. Azkenean ez zigun uzten ahal eta gure aldetik bilatu dugu. Lehen Tximelleta denda zegoen lokala (Merkatarien karrika 7), Doneztebeko Herriko Etxearen ondoan, hartu dugu errentan borts urterako.

**Orain moldatzea eta martxan jar-**

**tzea faltako zaizue. Noizko espero duzue bulegoa irekitzea?**

Orain egokitzen ari gara eta solairu hutsa dena moldatzen bi hilabete eramanen digu. Beraz, apirila bukaerarako irekitzea espero dugu. Hasieran arratsalde hutsa arituko gara. Informazio kanpaina handia egin beharko dugu, lehenbiziko aurkezpena Bortzirietan bakarrik egin baigenuen. Baztanen eta Malerrekan ezezagunak gara.

**Zein zerbitzu eskainiko dituzue bulego berrian?**

Hasieran bi zerbitzu eskainiko ditugu. Alde batetik zuzeneko arreta, senideekin solasteko edo gaitza dutenekin egoteko, sikologoak eramanen duena. Bertzetik, aisialdiko ekintzak antolatuko ditugu eriek gauzak egiteko, margotzeko, marrazteko...

**Buruko eritasunei buruzko azterketarik egina da eskualdean?**

Lesaka eta Elizondoko Osasun Zentroek egina dute txostena eta 5.847 kontsulta egin dituzte azken hiru urteotan. Eskizofrenia kasu aunitz daude, baita depresioak ere, uste duguna baino gehiago.



Gaur egun Baztango Udalak eskuartean duen alternatiba nagusia ageri da irudian. Etxegaraiko bidegurutzetik Urbilloko lepora dagoen bidea moldatu eta hortik Iñartzeko lepora kilometro terdiko bide berria eginen litzateke, Aldudetik datorren bidearekin lotzeko.

ELIZONDO-ALDUDE ERREPIDE BERRIA

# Baztango Udalaren egitasmoa ez da Belaunaldea Bizirik taldearen gogoko

**Joan den urteko udan jakin genuen Elizondo eta Aldude artean bide berria egiteko dirulaguntza emanen zuela Europako Interreg programak. Aurrekontuaren erdia estaltzera ailegutzen ahal da Europako dirulaguntza. Gainera, Nafarroako errepide zation gastuaren %80a Nafarroako Gobernuak ordainduko zuela jakinarazi zitzaion Baztango Udalari. Hasierako proiektuaren arabera, berritik egin beharke litzateke bidea, Bailei inguruko Belaun mendi-lepotik hasi eta Aldudeko pistarekin lotuz. Aurrekontua 605.554 eurokoa izanen litzateke; Nafarroako Gobernuak 440.000 euro ordainduko lituzke, Balleko Udalak 110.000 euro, Baigorriko Herriko Etxeak 32.024 euro eta Aldudeko herriak 23.530 euro.**

**Aitor AROTZENA**

Europako dirulaguntzari esker gastu hau murriztuko litzatekeela jakinik ere, proiektu honek ez du baztandar guzietan oniritzia izan. Errepide egitasmoaren aitzinean hausnarketa plazaratu zuen joan den urteko abenduaren 11n Belaun aldea Bizirik! taldeak. Talde honen ustez, hitzarmen

guzietan bidearen moldaketa agertzen da, baina orain ez da biderik inguru horretan, Joseba Otondo taldekideak erran digunez: «Hitzarmen guzietan argi eta garbi agertzen da bide baten hobetze eta moldatzea dela eta hori da, azken batean, onartu dena. Baina toki horretan halakorik ez da deus ageri. Orduan, gauza ba-





ten aitzakian bertze bat egin behar dute, nolabaitere hitzarmeneko objektua desbirtuatzen ari dira eta hori gure ustetan zuzenbide iruzurra da. Modu horretan ezin daiteke bide hau egin ez baitu inongo babes legalik, ez baita inon ofizialki onartu. Horren haritik, bide honen egiteko egin ditzaketen diru publikoen erabilerak bidegabeak dira, guzi horrek ekartzen dituen ondorio eta ardura guziekin».

## BAZTANGO UDALA ALTERNATIBA ONENAREN BILA

Hasierako proiektuak pagadia erdiz-erdi gurutzatzen zuela kontuan hartuz, hura baztertu eta bertze lau alternatiba aztertu ditu Baztango Udalak, gehienak Beartzun ingurutik pasatzen zirenak. Etxegaraiko bidegurutzetik Urbilloko lepora doan bidea moldatu eta Urbillo eta Iñartzeko lepoaren artean kilometro terdiko bide berria egitea proposatzen da, Aldudetik datorren bidearekin lotzeko. Virginia Aleman Baztango alkateak badaki egitasmo hau ez dela herritar aunitzen gogoko, baina alternatiba onena bilatzeko idekiak daudela erran digu: «Belaunaldea Bizirik hor dago, baina bada jende gehiago ere proiektuaren kontra edo bertze modu batera egiten ahal dela erran diguna. Gu irekiak gaude aditzeko eta proiektu hoberena egiteko, denen arteko adostasuna duena. Alternatiba ezberdinak aurkezteko Belaunaldeako bozeramaileei gonbidatu genien gurekin mendira gateko ikustera, baina edozein proiektuarekin ez zeudela ados erran ziguten, ez zirela joanen. Gu denak ados egoteko moduko alternatiba bilatzen genuen».



## Joseba OTONDO *Belaunaldea Bizirik*

### Elizondo-Aldude errepidea=erokeria aipatu du Belaunaldea bizirik taldeak. Zergatik?

Ez baita inon ere arrazoirik ematen errepide horren egitea justifikatu lukeenik. Gaurko egunean 100 milioi pezeta gastatzea inolako arrazoirik gabe ez zaigu bidezkoa iruditzen. Gaur egun kontsentsu haundi xamarra dago erranez errepidea= antzinamendua, eta aitzakia horretan gisako proiektuak egiten dira arrazoitu gabe.

Baztango Udalak Nafarroako Gobernuarekin izenpetu zuen hitzarmenean bi arrazoi nagusi agertzen dira: batetik bide honekin mendiko nekazaritzaren garatzea eta senderismo turismoa lagunduko litzatekeela aipatzen da, denok bada-kigularik inguru horretan baserririk ez dela eta mendiko nekazaritza bortizki baldintzatuta dagoela Europako PAC politiken bidez eta senderismo turismoa egiteko aski dela inguru horretako bertze edozein lepora hurbiltzea eta handik oinez ibiltzea, horretarako ez da bertze biderik behar.

### Udala, Europatik datorren dirulaguntzaren menpe jarri dela ere aipatu izan duzue...

Erabiltzen den argudio-etako bat da Europatik badela dirulaguntza bidea egiteko eta dirulaguntza baden neurrian ongi ikusten dutela ho-

rrelako gauza egitea. Horren aintzinean erraten dugu Europatik dirulaguntza balego Auzamendi hegalean ski estazioa egiteko ez zitzaigula zuzen irudituko hori egitea. Hau da, baztandarrok erabaki beharko dugu nola antolatzen dugun Baztan ingurua, beti ere gure behar eta interesen arabera. Bistan da gero hori gauzatzeko dirulaguntzak beharko ditugula. Baina kanpoko dirulaguntza batek ez du baldintzatzen ahal hemen egin behar diren azpiegitura eta proiektuak.

### Bertze alternatiba aztertzen ari da Udala...

Guk lehenagokoarekin segitzen dugu, errepide berria egiteko arrazoirik ez dagoen neurrian, errepide hau ez da egiten ahal, ez bide honetatik ez lehenagokotik. Arrazoirik ez baldin bada ez du ez buru ez buztanik inguru bat nolanahti taratatu eta hondatzea.

**“Kanpoko dirulaguntza batek ez du baldintzatzen ahal Baztanen egin behar diren azpiegiturak”**

## Virginia ALEMAN eta Santi ALDAKO *Baztango alkate eta zinegotzia*

**“Harremanak lantzeko eta komunikabideak hobetzeko bidea egin behar da”**

### Lehenbiziko proiektua alde batera utzi baldin baduzue ere, bidea egiteko asmoarekin segitzen duzue?

Bai, hori lehendik heldu da eta kontsentsuatua zegoen, bai Aldude eta Urepeleko Udalekin eta bai hemengoarekin. Pentsatzen dute egin beharra dela, gure harremanak lantzeko eta gure komunikabideak hobetzeko delakoz. Egin behar da, baina alternatiba hoberena begiratu.

Gainera, Europatik heldu da dirua, 500.000 euro, eta bertzenaz diru hori galdu egingen da. Jendeak galdetzen du: «zergatik ari zarete honetan eta ez duzue bertze hau kontpontzen?». Egia da, gure bideak ez daude ongi, baina subentzioa hau egiteko heldu da eta hortik ez zara ateratzen ahal. Proiektu honekin aitzin segituko dugu lehendik adostua zegoelako. Zaila da Urepeleko herria, Al-

dudeko udala eta Baztango Udala denak ados egotea horrelako gauza bat egiteko. Europatik dirulaguntza ematen baldin bada hemendik eskatu delakoz da. Hemengo teknikariek eta jendeak afera aztertu du, proposamen hau Europara egiten ahal zela erabaki dute, European onartu dute eta orduan, egiten da. Momentua eta aukera probestea da.

**Aldude eta Urepeleko udalekin solastua duzuela aipatu duzu. Zer jarrera dute?** Herritarrak ez dakit, baina udalak ados daude. Gainera, beraiek gu baino aunitzez gogo gehiago dutela iruditzen zait. Behar haundia ikusten

dute. Beraiek erraten dute nahiago dutela Baztanera etorri mandatuak egitera Baionara gan baino. Beraiek ilusionatuak daude, izan ere beraiek izan ziren proiektu hau sortu zutenak. Bai honekin, baita bertze afera batzuekin gurekin elkarlanean hasi nahi dute, harremana landu eta estutu. Hango gazteak honat etorri edo hemengoak harat gan, besta egin, erosketak egin... Iparraldeko jendea Dantxarinateatik maiz etortzen da Baztanera, batez ere hemen besta egitea merkeago delako. Horrek harreman aunitz sortzen ditu. Harreman komertzialak ere sortuko lirateke.

Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Frankeo Itundua: 34/79  
Tirada: 6.000 ale

**ttipi-ttapa aldizkaria**  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88  
Faxa:(+34) 948 63 12 91  
[ttipi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.com)

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena.  
**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.  
**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...  
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Euskal herriaren nortasuna (1)

Urratuta dagoen bi-dearen nondik norakoaren bila dabilen herria gara. Batera eta bestera joaz, okerreko bideak hartuta ere bai, baina hori aurrekoaren ondorioa da; edo bestela, zer pentsatu behar da, herri honetan mutazioen bat gertatu dela jatortasunez ezagutzen zena gaizkile izatera pasatzeko? Izan ere horixe diote gure argiak itzali eta gure bideak urratu dituztenek.

Duela gutxi pistolak utzi behar ziren, baina gaurgure hitzek, nonbait, kalte berdina egiten omen dute eta gure buruetan ez omen dago zentzurik. Hemen euskal herriaren fantasma dabilera irakurtzen nuen lehegoan. Uste dut hildakoren baten espiritua izan daitekeela fantasma. Herri hau, justuan eta gaizki, baina bizi da,

eta hortxe dago koska; euskal herritar sentitzen garenok bizirik jarraitzea nahi dugula. Hori bakarrik ez. Behar bezala bizitzea opa diogu. Nola onartuko dugu horren bila aritzea terroristen nahiei amen egitea denik?

#### Burujaibetza

Herri honek, behar bezalakoa izateko, burujaibetza nahi eta nahi ezkoa du. Hori besteetaz ahaztea omen da. Hori esaten ari dira espainiarrik. Niri, guk burujabetza nahi izatearen arrazoia gure nortasuna eza-gutuzteak argitu dit.

Gauzak konpontzeko nahia balego hasi beharko litzateke azaltzen hemen noiz hasi zen terrorismoa eta noiz herria horri aurre egiten. Jakina, horretarako batzuek eta besteok berriro azaldu beharko dugu geren ustetan zer den euskal herria.

Herri hau bere bu-

ruaren jabe izatetik besteren menpe egotera pasatu zenean, horrexek eman zion, hain juxtu, jende askori, hemen lehendik herri batinoiz izan ez balitz bezala bizitzeko aukera. Merezi du gogora ekartzea lehengo egunean Iñaki Sagredok esanguratsua: zerk bultzatzen du bertako bat bereari uko egin eta menperatzailea besarkatzea?

Herri honek, bere bu-ruaren jabe zenean, kanpotik etortzen zirenekin harremanak eta borroka izan zituela badakigu, eta horrek sartu zitu gure izatean, hau da, hizkeran eta izakeran. Nabariak dira kanpotik etorritako arrotzen sustraian eraginak, onerako nahiz txarrerako. Baina indarrez baliatuta eta gezurrak erabiliaz hemen sartu, bertakoak txikitu, izatea bera ukatu... Horrek ez du zer ikusirik kulturen arteko besarka-

darekin. Eta hori gertatu zen, nahiz eta duela urte batzuk bezala orain ere ukatzen jarraitu nahi duten batzuek.

Lur honetan bizi den jende askok "vascos de España o de Francia"tzat jotzen du bere burua. Horiek garbi azaltzen dute bere izate horren kontrako jarrera dagoela hemen; baina, horren kontrako jarrerarik noiz ez da egon? Hain zuzen ere, bere burua espainiarizat eta frantziartzat dutenen jarrera horrek indarraren bidez itxi izan dizkie ateak horrela sentitzen ez zirenei.

Gure menperatzaileek ez dute onartzen hemen herri bat lehendik dagoela. Euskararen herria. Eta guk hori ezin dugu onartu.

Iñaki Perurena

**UDALBILTZA**  
EUSKAL HERRIKO UDAL  
ETA UDAL HAUTETSIEEN BILTZARRA

**UDALBILTZA**<sup>®</sup> k,  
denon giza-eskubide guztien alde egonik,  
Euskal Herriko herrien arteko senidetze  
programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

[www.udalbiltza.info.com](http://www.udalbiltza.info.com)

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Navarra 2004-01-30

«Gure etorkizuna Baztanen zubiaren zabaltzearekin lotua dago; ez bakarrik arriskutsua delakoz, baita moldatu ezean ezinezkoa izanen dugulako azientak jartzea, gure ilusiorik haundiena, honela ezin baita furgoneta ere sartu. Fisikoki lagundu behar bada eginen dugu, baita ekonomikoki egin behar bada ere. Udalaren eta gure artean jartzen ahal dugu, edo akaso udal arkitektuek soluzio merkeagoren bat bilatzen dute».

Fernando FUENTES  
Berroetako bizilaguna  
D.Navarra 2004-01-30

«Arturo Campionek hizkuntza bizia nahi zuen eta horregatik euskara ikasten saiatu zen. Kezka hori kitatu zuen nolabait eta ahalegindu zen herrikideei begira. Horren lekuko da bere gramatika. Hutsune bat bete nahi izan zuen horrela. Gaztelaniaz idatzita dago, jendea euskararen ingurura hurbiltzeko xedez, euskararekin interesatuek euskara ezagutu zezaten. Gramatikaren bitartez euskara ikasi egiten dela frogatu zuen».

Andres IÑIGO  
Euskaltzaindiako itundarra  
ARGIA 2004-02-15

• 11 GALDERA LABUR •

**Altxata kultur elkarteko lehendakari, iñauterien eta bestetako asauaren antolatzaile, etxeko-andre... zer gehiago?**

Bertze gauza aunitz gehiago baina denan gaintikan neska hagitz formala (irriak).

**Iñauterietako astelehena edo bestetako asaua?**

Asaua. Eta hori antolatzen aritzen naizela! Baina halere hagitz ongi pasatzen dugu. Giro berexia izaten da eta etxalartar guzientzat urteko egunik hoberenetako bat da.

**Igande goizeko plana: lo eguerdi arte edo mendira ibiltzera?**

Duela urte batzuk eguerdi arte lo erranen nizuke baina orain nahiago dut mendira ibiltzera ateri.

**Zer dute Etxalarko iñautik bertze lekutakoek ez dutenik?**

Guriak direla, herritarrenak bakarrik. Ez da kanpoko inor etortzen baina ederki pasatzen dugu etxalartarrak gure artian.

**Aditu dugu aurten-go Aste Santua baino lehen ez-konduko zarela...**  
Gezu-



rraa! Nondik ateri duzue hori?

**Lehenbizikotariko neska izan zinen iñautitako astelehenean baserri baserriko eskian ateratzen. Orain berriz, neska zarete gehien...**

Oroitzen naiz gu sartzian mutil aunitzek utzi egin zutela. Baina guregatik ez balitz igual orain ez zuen eskiak aitzinera segituko. Ni hagitz harro nago hasi izanaz. Pentsa, aurten 50 bat ateriko gara!

**Operación Triunfo eta Gran Hermanon jarraitzeala zarela erran digute. Sartuko zinen horrelako programa batean?**

Ikusi bai, baina sartu inondik ere ez! Sobera aldatzen da jendea horrelako programatan. Ni ongi nago nagoen bezala.

**Mozorroretzeko, erositako arropa edo ganbarako lau trapu zaharrak?**

Errexena egiten dena. Igual zait eresia edo etxetik hartua izatea.

**Gustura ezagutuko zenukeen munduko xoko bat?**

Himalaia aldea, baina Kuban egona naiz eta gustura bueltatuko nintzateke harat ere.

**Non egoten da hobekiago: etxean edo kanpoan?**


Etxean dudarik gabe. Ni hagitz etxetzalea naiz. Etxean bezala inon ere ez.

**Amets bat?**

Mundu-mailan berdintasuna izatea. Injustiziarik ez egotea.

**Ainara ARBURUA**  
*Etxalarko gaztea*

Foruen Plaza 2 • BERA  
tel.: 948 625 542  
faxa: 948 625 541



**DROGUERIA MOLINERO**

**PINTURAK**  
DROGERIA

- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guziak

**Helbide berria:**

Zalain auzoan,  
Aceralia fabrikaren parean  
© 948 63 02 40 • Mug.: 627 622333  
**BERA**

*2.000 kolore*  
*baino gehiago lortzen ahal duen makina*  
*10 minututan*  
*zuk nahi duzun kolorea*  
*Profesionalentzat prezio berezia*



## KULTURA

# Nafarroako Haur Kantari txapelketan izen emateko epea otsailaren 27an akautuko da

Martxoaren 6an Donezteben egingen da kanporaketa bat eta finala apirilaren 4an Iruñean

## ttipi-ttapa

Otsailaren 27an akautuko da Nafarroako Haur Kantari txapelketan izen emateko epea. Aurtengo kanporaketak martxoaren 6tik aitzinera egingen dira Donezteben, Tafallan, Berriozarren eta Lizarran. Finala, berriz, apirilaren 4an egingen da Iruñeko Gaiarre antzokian, goizeko 11etatik aitzinera.

Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamenduaren laguntzaz antolatzen duen txapelketa honen helburuak honako hauek dira: euskal kantugintza zabaldu eta haurrei erakustea, haurren zaletasuna piztea, kantuarien bidez haurrak hezitzea eta musikaren heziketa teorikoa praktikaren bidez ere bultzatzea. Bi kategoria bereizten dira Haur kantari txapelketan: ttikiak, hau da, 1993tik 1997ra sortutako haurrei dagokiena eta gaztetxoak, sail honetan 1989tik



ARTXIBOKOA

## Duela zazpi urteko txapelketan, Berako Ttipitarri taldea.

1992ra jaiotakoak sartzen direlarik. Ikastetxe bakoitzak bi talde, bat ttikien kategoriagoa eta bertzea gaztetxoena eta bertze bi ordezkari, banaka edo binaka, aurkezten ahal ditu. Beraz, zentru bakoitzak gehienez ere lau ordezkari izanen ditu txapelketan. Kantari bakoitzak lau minutu inguruko kanta bakarra aurkezten ahal du. Kanta zahar eta berriak

eman daitezke, beti ere herritar eran eta ez goi mailako polifoniaz. Doinuak, hitzak, ahotsa, trebetasuna, interpretazioa eta kantuarien ekarpena izanen ditu kontuan epaimahaiak. Baina, kantu lehiaketa denez, bertze guzrien gainetik kantua baloratuko da, nahiz eta kantariak nahi duen musika laguntza eramaten ahal duen.

Aurtengo edizioko

epaimahaiakideak Arantza Ezkurra, Burlatako Musika Eskolako irakaslea, Mikel Juaniz Barrañaingo Musika Eskolako irakaslea eta Pamplonesako kidea eta Amaia Dominguez Agoizko eta Garinoaineko Musika Eskoletako irakaslea eta Iruñeko orfeoiko kantaria izanen dira. Kategoria eta modalitate bakoitzeko lehenengo bientzat iza-

nen dira sariak. Epaimahaiak bertze sari batzuk eman ditzake. Arestian aipatu bezala, izen emateko otsailaren 27a arte egingen ahal da 948 141812 telefonora deituz. Ezinbertzekoa da abestiaren hitzak eta partitura postaz, e-postaz edo faxez bidaltzea helbide honetara: Kantuzaleen Elkarteak; Descalzos 50, behea; 31001 IRUÑEA. E-posta: euskokultur@terra.es.

Lehendabiziko kanporaketa Doneztebeko Bordatxon izanen da martxoaren 6an, 17:00etan. Martxoaren 13an, 17:00etan Tafallako kanporaketa egingen da. Martxoaren 20an, ordu berean, bertze kanporaketa bat antolatuta da Berriozarren Mendialdea eskolan. Azken kanporaketa martxoaren 27an izanen da, 11:00etan, Lizarrako Golem zine-man. Finala apirilaren 4an, 11:00etatik aitzinera egingen da Iruñeko Gaiarre antzokian.

**Alzuri**  
Sukalde tresneria eta opariak  
Landare eta loreak  
Tfnoa: 948 630 370  
BERA

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRIAK  
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

TEL K  
K MISET K  
ISE K  
K MISKE K  
N HI UZUNK U U, NEU I ET (ISEINU) ERIN  
Ezt r z h T l- F x 3 15 21

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
saqardotegia jatetxea saqardotegia

**ZJ**  
**Zalain**  
jatetxea  
C/ Sagardotegia 10 • Tel. 948 63 09 47  
Bera - Nafarroa



**BERA**

## Beharra dutenei laguntzeko boluntarioen boltsa osatuko da

Etorkinekin, gazteekin eta gurasoekin ere lanean hasi nahi du Udalak

**Amaia eta Ainhoa**

Udaleko Gizarte Gaietarako Batzordea hainbat lan ildo jorratzen hasi da, tartean, etorkinekin lan egitea, gazteak eta aisialdia, guraso eskola eta boluntario boltsa osatzea. Boluntario boltsa, dagoeneko, bere lehenbiziko urratsak eman ditu, eta beratarrei dei egiten zaie, bakoitzak bere denboraren arabera, behar gehien duten pertsoneri laguntza eskaini dezaten. Boluntario boltsa honen helburu nagusia bakarrik dagoen jendeari konpainia egitea da. Bertze aukeretakako bat Uxaneko gazteekin larunbatetan aisialdiko ekintzetan parte hartzea litzateke.

Izen emateko lehenbiziko fasea martxoaren 1a bitarte egonen da zabalik, eta aski izanen da 012 telefonora deitzea. Bertan, boluntario bakoitzak ordutegi, aste-ko egun, disponibilitate eta bete nahi duen lan motari buruzko galdera batzuei erantzun beharoko die. Gizarte gaietarako batzordearekin batera, martxan dira kultura eta bestak, mendia eta ingurunea, kirola, euskara, nekazaritza-



ARGAZKIA: AITOR

**Udal kiroldegia kudeatzen duen Urdibera enpresak urtebete egin du lan horretan. Hori dela eta, herriko udal agintariak, kirol taldeak eta kirolariak gonbidatu zituen otsailaren 3an egin zen urtebetetze bestara.**

merkataritza-industria-turismoa, osasuna eta hirigintza-herri lanak.

**Iñauteriak**

Otsailaren 19an hasiko dira iñauteriak, Ortzegun Gizen egunean. Goizez herriko haurrak eta gazteak auzoz auzo ibiliko dira Zingararraultze abestuz. 15:30etan Agerratik Iñudeak eta Artzaiak atetako dira. Eztegarapilotelekuan gaztetxoak elkartuko zaizkie. Ibilbidea bukatu ondoren mendua izanen dute. 17:00etan Detraka tal-

deak berbena eskainiko du kiroldegian. Trikumailu Berria ikuskizunaren bitartez umeak Detraka taldekoen musika tren berrituan munduan barna bidaiatuko dute kultura eta ohitura berriak ezagutzeko. Kanta sorta erabiliz, eta joku eta dantzen bitartez, guztion parte hartzea bilatuko da.

Otsailaren 21ean, larunbatean, Kaldererak etorriko dira iñauteriak iragartzera. Konpartsa 19:00etan atetarako da Berako Plaza-tik eta Altzaten bukatu-

ko da bikote baten ezkontza eta baratxuri zopa jatearekin.

Otsailaren 22an, igandean, Iñudeak eta Artzaiak goiz osoan ibiliko dira herriko karriketaren barna eta ondoren bazkari ederra egiten dute parte hartzaileek. Eta azkeneko egunean, iñauterietako astelehena izanik, goizean zingararraultze eskean ibiliko dira herritarrek eta 18:00etatik aintzineratxaranga bat egongo da Altzaten barna iñauteriak girotzeko helburuarekin.

**FLASH**

**Gazte Asanblada**

Gazte Asanbladak prentsaurrekoa egin zuen taldearen aurkezpena egiteko. 50 lagun inguru dabilta lanean eta bi lan ildotan banatu dute beraien lana: euskara eta aisialdia. Aisialdiaren inguruan, hilabetero ekitaldiaren bat antolatzeko asmoa dute eta Gazte Eguna, bertzeak bertze. Eta euskararen inguruan lan egiteko elkartuko dira eta adibidez Euskararen Eguna egiteko intentzioa badute. Nahi duena aste-eroko bileratara joaten ahal da.

**Irakurri eta Idatzitako Tailerra**

Uxua Emakume Taldeak Kultur Batzordearen laguntzarekin Irakurri eta Idatzitako Tailerra antolatu du. Mari Karmen Lanzek erdaraz emanen du ikastaroa martxoaren 2tik ekainaren 22ra, asteartero, Jesusen Bihotza Ikastetxean 19:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko 012 telefonora deitu behar da. Matrikularen kostua 20 eurokoa izanen da.

**Udal zergak**

Martxoaren 10a arte zabaldua dago 2004.eko Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren ordain agiria ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, exekutibo bidez kobratuko dira, interesak eta gastuak gehituta.

**SAROB**  
okindegia   
**SANDERS Pentsuak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

  
**Bizikleta Tailerra**  
errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak  
Arropa eta osagarriak  
**Salmenta eta konponketa**  
Kanttonberri 1, bis • BERA  
Fax - Tel: 948-631218

  
© 948630052 • Zalain • BERA

## LESAKA

# Ortzegun Gizeneko eskeak abiaraziko ditu aurten ere Iñauteak

Igande arratsaldean ohiko ibilbidea egingen dute zakozaharrek

## Aitor AROTZENA

Otsailaren 19a izanen da aurten Ortzegun Gizen eta urteroko ohi-turari eutsiz, «Arraultze arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertze» eskearekin hasiko dituzte herriko neska-mutikoeak iñauteiak.

Lehendabiziko mo-zorroak otsailaren 21ean, larunbat arrats-ean ikusiko dira, afal ondoan. Zakozaharrek, frontoiaren gibelaldean belarrez ongi bete ond-otik, urteroko ibilbidea osatuko dute igande arratsaldean, musika bandaren laguntzarekin. Beti bezala dantzal- dia izanen da plazan.

Astelehen eguerdian lagun koadrila ezberdi- nek osatutako karrozak ikusteko modua izanen da plaza inguruan. Bas-erriz baserriko lehen- dabiziko itzulia astele- hen goizean egingen du- te Fraindarrekin, eginki- zun hau xintxo betetzen segitzen duen talde ba- karrak alegia. Bertze- entzat egun horretan akautuko dira iñauteak, baina Fraindarrak aste- artean ere ibiliko dira Izotzaldean eta herrian. Hauekin parte hartzeko lehenbailehen eman be- har da izena Koskillan.



Artxibokoa

Karrizak karriz ibili ond-otik, Plaza Zaharrean akautuko dute igande arratsaldeko ibilbidea zakozaharrek.

## Jone Fagoaga Erregearen Kopan txapel- duna

Jone Fagoaga tirala- riak Erregearen Kopa irabazi zuen otsailaren 7 eta 8an Madrillgo Can- toblancon. Laugarren al- dia segidan da txapel- keta hau irabazten due- la, baina aldi honetan Espainiako errekorra ere hobetu du, 75 pla- teretik 63 hautsi baitzi- tuen. 10 platereko aban- taila atera zion bigarre- nari. Martxoaren 6 eta 7an Nazioarteko Saria jokatuko du Granadan.

## Euskal Herriari Bai eguna

Otsailaren 7an Eus- kal Herriari Bai eguna burutu zen. Goizean prentsaurrekoa eskaini zen, egun honen hel- buruak zehaztuz. Udal eta foru bozetan izan- dako «putxerazoa» sa- latu eta martxoaren 14ko deialdian «Espai- niari ez» erran behar zaiola adierazi zuten. Arratsaldean, salaketa bilketa egin zen Herri- ko Etxeko arkupetan eta ond-otik bideo eman- dia. Akautzeko, herri afaria egin zen Arranon.

## Sokatira taldea Eskozian

Aldizkari hau es- kuartein duzunerako Eskozian izanen dira Beti Gazteko sokatira taldeko mutilak, Mun- duko txapelketan parte hartzen. Euskal Herriko txapelketan haserre agertu ziren lesakarrak, Abadiñoko tiralari- ek oinetakoetan zola li- jatuta egin zutelako, gomari gehiago atxikitzeko. Po- lemika komunikabide- taratu heldu da eta Beti Gazteko eskatzen due- na zera da, denek bal- dintza bertuan tiratzea.



## Otxoteko eta Telletxea pilota goxoarekin txapel- duna

Urtarrilaren 31n jo- katuz Leitzako Ama- zabal pilotalekuan Be- late elkarteak bigar- ren aldiz antolatutako pi- lota goxo txapelketaren fi- nala. Joan den urtean bezalaxe, Lesakako Ja- vier Otxoteko eta Ima- nol Telletxea suertatu di- ra txapel- duna, finalean Berako Luis Mari Rete- gi eta Erratzuko Urru- tiari 22 eta 14 irabazi on- dotik. Partidaren irau- penak, 80 minutu, ongi erakusten du bi bikote- en arteko berdintasuna, batez ere lehen zatian.

Txapel- dunek Ameri- ketako bidai baten sa- ria jasoko dute aurten ere. Iaz kalifornian bar- na ibili baziren, aurten Venezuelako euskal Etxeak ezagutzeko au- kera izanen dute, Aste Santuan.

**BOBEKO**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa · LESAKA  
Tfnoa: 948 637826

**ANJA**  
Janaridenda  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

**XATURETKEA**  
Zafra  
JATETKEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**IRU BIDE**  
ZAKAZAHAR  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 948 627 514  
Behoko Plaza 8, LESAKA



## ETXALAR

# Ortzegun honetan hasi eta astelehen eta asteartean eginen dira Iñauteriak

Joan den igandetik hasita, mendi ibilaldiak antolatu dira igande goizetan

Joseba eta Nerea

Herriko ttikienek eman diote hasiera ortzegun honetan aurten-go iñauteriei. Goiz osoan etxez etxe ibili eta arratsaldean antzerkiak eskainiz 2004ko mozorro-saltsan murgildu zen herria. Orain nagusixegoak hartuko diete erreleboa eta heldu den astelehen eta asteartean, Etxalarren "Haundien Iñauteriak" deitzen diegun egunak izanen dira. Urtero bezala, goizeko zortzi terdietan Haritzpe ostatuan eginen den gosariarekin hasiko dute gazteek iñauterietako astelehena. Behin indarrak hartuta, bi taldetan banatuko dira. Batzuk goiko auzoetan ibiliko dira eskean eta bertzeek berriz, beheko auzoetako base-riek eginen diete bisita,

herriko trikitilariak lagun. Bazkaria Santsiñeneko Bordan eginen dute lehenbizikoez eta Armitxen bertzeek. Arratsaldean eskean segituko dute eta arratsean, bildutako diruarekin, Haritzpen elkartuko dira denak afari ederraren buel-tan. Ondotik berriz, ordu ttikiak arte luzatuko dute besta bildutakoek.

Asteartean, eguerdian, Etxalarren "Haundien Iñauteriak" deitzen diegun hamabietan hasiko dute eguna adin guzietako herritarrek. Urtero bezala, hainbat karroza eta mozorro bilduko dira plaza inguruan, denak elkarrekin herribuelta egiteko. Ondotik, Herriko Ostatuan eginen da mozorro-bazkaria eta arratsaldean poteoan ibiliko dira gehienak, gorputzak ematen dien arte.

Bai asteleheneko eta bai astearteko otordue-



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

### Iñauterietako diapositiba-emanaldia

Otsailaren 8an diapositiba-emanaldi aski berexia egin zuen Ixaka Cruzek, berak iñauterietan bildutako irudi eta argazkiekin. Jende parrasta bildu zen Kultur Etxean, lehenago ere egin izan diren emanaldi hauek jakinmin handia bixten dutelako beti jendearen artean. Izan ere, denoi gustatzen zaigu duela urte batzuk bizitutakoa oroitu eta bidenabar irri pixko bat egitea.

tara joateko izena eman nahi duenak Elutsa ostatuan egin beharko du lehenbailehen.

### Mendi ibilaldiak

Joan den igandean hasi ziren Altxata Kultur Elkartek antolatutako mendi-ibilaldiak. Baziren urte batzuk ateraldi hauek egiten ez zirela eta Joxe Mari Arburuaren gogorazioz, berriz egiten hasi dira. Hasieran hurbileko irteerak izanen dira eta denborarekin ibilbide luzeagoak eginen dituzte. Joan nahi duten guziei

daude irekiak eta kartelak paratuko dira igandeko bakoitzeko ibilaldien inguruko informazioarekin. Joxe Mari erran digunez "herriko gaztetxoenei begira egin dugu gehienbat, iruditzen zaigulako aunitz dirrela oraindik herriko auzo, baserri eta mendiak ezagutzen ez dituztenak. Eta baita nagusixegoak ere! Gu natura hobeki ezagutzen saiatuko gara ibilaldi hauen bidez: errekek, landareak, arbolak... Herriar guziak animatzen ditugu igandero, goize-

ko bederatzietan, gurekin etortzera, dudarik gabe mereziko duela-ko!"

### Arkupeak elkarteko bazkaria

Arkupeak erretiratu eta pentsionisten elkar-teak Etxalarren dituen bazkideek beraien eguna ospatu zuten otsailaren 15ean. 2003an hildakoen aldeko meza nagusiarekin hasi zuten. Ondotik, elkarteko 45 bat kidek elkarrekin bazkaldu zuten Anttonioren erretegian.

## IGANTZI

## Herria ezagutuz

# Heldu den astean, hilaren 28an, izanen da Biltokiko batzarra

Otsailaren 20an egingen dute, berriz, eskolako iñaute-antzerkia

## Oskar TXOPERENA

Heldu den astean, otsailaren 28an, 20:30-ak aldera egingen da Biltoki Elkarteko urteroko ohiko batzar nagusia. Deus berririk gertatu ez denez, ohikoak izanen dira eztabaidatu beharreko gaiak ere: Urteko kontuak eta antolatutako ekintzak, bazkide berriak eta bazkide izateari utzi diotenak aipatzea, juntaren zenbait kideren aukeraketa, ... Jende gazte aunitz sartu izan da azken aldiotan juntan eta nabaritu egin da gero lanerako orduan, aspaldi honetan hagitz ongi baitoazi gauzak elkartean. Hirurogeita hamar bazkide-  
tik goiti bildu ohi da batzar hauetara. Ea oraingoan ere jendeak behar bezala erantzuten duen.

## Eskolako iñaute-antzerkia

Aldizkariaren egutegiarengatik hurrengorako utzi behar izan ditugu herriko iñauteen harat-honatan kontuak,



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 7ko Biltoki Elkarteko mus eta partxis txapelketen finaletan aritu ziren hamasei lagunak ageri dira argazki honetan. Partxisean M<sup>a</sup> Luisa Etxeberria eta M<sup>a</sup> Paz Petrikorena –Xeberinok kendua dio zapela argazkian- izan ziren garaileak, Gurutxe Iribarren eta Xeli Etxeberriari azken partida irabazita. Musean, berriz, Antonio Zarra eta Antonio Iguzkiagirrek aisa irabazi omen zituzten finalerdia eta finala, azken hau Ramontxo eta Xeberino Rete-giren aurka. Ez omen zieten arerioei hamarrek bakar bat ere egiten utzi. Afalondoan sariak banatu zizkieten hamasei eta trikitrilarien musika eta dantzaldiak hirurak aldera arte iraun zuen, giro ederrean.

baina oraindik tenerez gabiltza eskolan egingen den urteroko iñaute-antzerkia aipatzeko. Aurtentzen aldaketa bada gainera aitzineko urteekin alderatuz, asteazkenean izan beharrean ortzira-

lez izanen baita, 20an, eta 14:30etan. Hiru taldetan banatu dituzte haurrak aurtengo antzerkia egiteko: Haur Hezkuntza eta 1. ziklokoek batera arituko dira eta 2. eta 3. zikloko-

ek bakoitzak berea egingen du. Eskolako gimnasioan izanen da ekitaldia, nahiz eta azken urteotan estu samarra gelditzen ari den lekua haur, irakasle eta gurasoentzat.



## Iruiturrieta

Lehenengo kronikan aipatutako Iruiturrietako parajearen aritrik, ez aspaldian bertatik herria ekarritako ur sarearen kontuak gogoratuko ditugu. Jakina denez, orain dela hogei-ta hamarren bat urtera arte Ankulutsatik (Araneko Elutsatik) hornitu izan da urez herria. Bazuen iturri honen ordea, eragozpen handia: maila hagitz apala izatea, hau da, urak presio nahikorik ez hartzea zenbait etxetarako. Erran bezala, hiru hamarkada joan dira arazo honi irtenbidea bilatzen hasi zirenetik. 1972an: “*declarar de necesidad una nueva traida de aguas utilizando el manantial de Iru-Iturrieta*”. Azkenean, obrak egitea erabaki zen eta Berako Dionisio Chantrek hartu zituen 1976an bere gain enkantean. Orduko pezetetan bi milioi eta erdiko aurrekontua izan zuten lanek, diru kontuak aunitz aldatu direnaren adierazgarri. Fraingo mendian, Onbordi gainean, Lesakako dermioaren muga ondoan dagoen paraje honen izena 1782an aipatzen da lehenengoz artxiboko dokumentoetan: “*Yru Yturrieta de Frain*”. Gauregun, ezagutzen duten herritarrek, Irúiturturta ahoskatzen dute.

**ANSONEA** jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatua

Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

**OBRA PROIEKTUAK**

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA



## ARANTZA

# Jardunaldi ezberdinak antolatu ditu Zahar Txokoak

Otsailaren 11n zuhaitzaren eguna egin zuten eskolako lagunek

**Nerea ALTZURI**

Zahar Txokoa jubilatuentzat elkargune polita da. Jubilatuek eta nahi duen orok ere, zenbait jardunaldiekin gozatu ahal izanen du hila bete honen hondarrean eta martxoan hiru egunez. Heldu den igandean, iazko kontuen berri emanez eta urteko aurikuspenen inguruan solasteko batzar nagusia eginen dute bazkideek. Ondotik bazkaria izanen da eta bazkalondoa Beñat Mitxelena herriko akordiolari gazteak alaituko du.

Bi solasaldirekin segituko du jardunaldi denboraldiak. Lehena otsailaren 28an, larunbate-

an, Alizia Sagaseta Bortzerrietako gizarte langileak, "Gizarte zerbitzuak Bortziritetako jubilatuentzat" goiburua duen solasaldia eskeinitu du 20:00etan. Ordu berean, aste baten buruan, martxoaren 6an, Iñaki Perurena harrijasotzaileak eta aktore lanetan ari den leitzarrak bere jubilazioaren aurikuspena egiten du solasaldi batekin.

Felipe Uriarte mendigoizalearen eskutik berriz diapositiba emanaldia izanen da martxoaren 10ean, asteazkenarekin, 20:00etan. Ameriketako hiru haundiak hartuz, Ojos del Sa-



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Ederki aski joan dira aurten ere iñauteak. Mozorro zuri zaharrenek eta gaztetxoenek ere, etxez etxeko puxka biltzea egin dute soinulariekin lagunduta. Giro ederrean, 65 emakumek ortziraletan afaria izan zuten. Mikel Salaberrri eta Jalisko band musika taldeek gorapeko lagun dantza egiteko gogo bixtu zuten ortziral eta larunbat arratsetan. Gainerakoan, larunbat arratsaldean haur mozorrotuek karrika buelta egin zuten, guraso eta umeen arteko 50 laguneko taldeak. Ondotik guraso elkarteak emaniko berendua izan zuten. Ilunabar partean, mozorroek prestaturiko herri kirol saioa izan zen: proba konbinatua, ingude altxatzeak eta karro itzulixkak eginez. Jokin Soroabat eta Jexux Mari Irazu bertsolariak ere afalurreko bertsoak bota zituzten frontoian. Ondotik 150 lagunek bertso afaria izan zuten Aterpen.

lado, Pissis eta Aconagua mendiak haintzat hartuz, irudiak eta solasak uztartuz momentu goxo bat pasatzeko aukera izanen da. Eta bukatzeko, martxoaren 21ean 13:00etan bertso

bazkaria izanen da Manolo Arozena eta Bittor Elizagoienekin.

Gogoratu bi solasaldien eta diapositiba emanaldien ostean afaldu dezakeela nahi duenak, baina hortarako as-

te bat lehenagotik juntako bere ordezkariari abisu eman behar dio. Ekimen guzi hauek Zahar Txokoan izanen dira, eta jubilatuek ez ezik ez direnak ere ikus entzule izan daitezke.



## BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

### 2004ko aurrekontua eta hura betearazteko oinarriak, eta plantilla organikoa

Bortziritetako Euskara Mankomunitateak, 2003ko abenduaren 17an egindako bileran, 2004ko aurrekontua eta hura betearazteko oinarriak onetsi zituen hasiera batez.

Espedientea jendaurrean egonen da idazkaritzan eta udaletako iragarki oholetan, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 15 egun baliaduneko epean, herritarrek eta interesatuek espedientea aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Bilera berean mankomunitateko plantilla organikoa onetsi zen.

### 2003ko kontuak

Bortziritetako Euskara Mankomunitateak, 2004ko urtarrilaren 21ean egindako bileran 2003ko kontuen aldeko txosten egin zuen.

Espedientea jendaurrean egonen da 15 egunez, interesatuek aztertu eta egoki juzkatzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Arantzan, bi mila eta laurok otsailaren bortzean. Mankomunitateko lehendakaria, Vicente Arotzena Biurraena.

**ie Iriarte-Echandi, s.l.**

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri • BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

**ALBERGIA JATETXEA**

**ATERPE**

© 948 634179  
ARANTZA

**J. RAMOS**

zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditudu

948 631 342 BERA - 948 637 172 LESAKA

## DONEZTEBE

# Kilimanjaro mendia igaitea lortu du lau laguneko espedizioak

5.895 metroko altuera du Afrikako mendirik garaiena

## ttipi-ttapa

Alejandro «Sanba» San Miguel, Tomas Sanz, Itziar Irastorza eta Maddi Ruiz mendizaleek osatutako Erreka mendi taldeko espedizioak Afrikako gailurrik garaiena, Kilimanjoro Uhuru Peak gaina, igaita lortu zuen otsailaren 11n. Lau doneztebarrekin batera katalandar bat ere izan zen 5.895 metroko altuera duen mendia igotzen. Bigarren aldia da laukote honek Afrika aldeko mendi bat igotzen duela. Lehenbizikoan Marokoko gailurrik altuena zanpatu zuten, Toubkal mendia, Erreka elkartearen lehendabiziko «lau milakoa» lortuz. Orain, beraien mendi ibilbidean bertze urrats bat eman dute. Zailtasun tekniko haundirik ez duen gailurra egin ondotik, otsailaren 12an itzuli ziren oinarriko kanpamendura eta 14an hartu zuten Doneztebera itzultzeko abioia.



ARTXIBOKOA

Gazteek ortziralean, otsailaren 20an egingen duten eskearekin hasiko dira aurten ere iñauteriak. Bitartean, eskolako haurrek herrian barna egingen dute mozorro desfilea. Larunbateko gosari eta bazkariaren ondotik, karrozak ikusteko aukera izanen da. Igande goizean ere izanen da musikaren laguntzaz poteatzeko aukera eta bazkariarekin akituko dira aurtengo iñauteriak.

## FLASH

## Formigalera bidai

Erreka Kirol Elkarteak heldu den otsailaren 28rako, larunbata, Formigalera bidai bat antolatu du. Urtero irteera bat egiten da eskiatzera joateko, eta aurten Formigal aldera joateko aukera izanen da. Autobusa 6:00etan aterako da autobus geltokitik. Apuntatzeko Nafarroako Kutxak Donezteben duen bulegora joan behar da otsailaren 20a bitartean. Prezioei dagokienez, helduen forfaita 30 euro izanen da eta haurrena 24 euro. Autobusa (forfait gabe) 20 euro. Erreka bazkideek 3 euroko laguntza izanen dute Nafarroako Kutxaren titularrek bertze 3 euro.

## Bidasoako Musika Eskolen Topaketa

Bidasoako Musika Eskolen Topaketa Donezteben egingen da aurten maiatzaren 15ean. Hori dela eta, gai honetaz solasteko eta ardurak banatzen hasteko, otsailaren 13an bilera egingen zineman, Agorreta Musika Eskolak deitua. Hondarribia, Irun, Hendai, Bera, Lesaka, Elizondo eta Doneztebe-ko musikariak bilduko dira topaketa honetan.

**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIKURIA-ERROTULAZIOA  
**MOSKITERAK, PERTSIANAK** MOTORIZATUAK,  
 VENECIANAK... PVCzko **LEIHO ETA ITXITURAK**

**PIKABEA**  
 harategia • urdaitegia  
 janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284



## MALERREKA

# Eskualdeko erretiratuek bi eguneko besta izanen dute

Eskultura eta pintura tailerra eraikitzen ari dira Elgorriagan

ttipi-ttapa

Doneztebe, Urrotz, Oitz, Ituren, Aurtitz, Zubieta, Donamaria eta Gazteluko erretiratuek bi eguneko besta egingen dute otsailaren 28 eta 29an. Larunbatean, Iturenen izanen dute hitzordua, Herriko Ostuan mus txapelketa izanen baitute jokoan. Txapelketa garrantzitsua izanen da, txapeldunak eskualdeko ordezkariak izanen baitira Arkupeak elkarteak eskualde ezberdinetako txapeldunekin irailean antolatzen duen txapelketa haundian parte hartzeko. Biharamonean, igandean, Elgorriagan segituko du bestak, Hilarion jatetxean, eguerdiko ordubietan hasiko den bazkariarekin. Menuari dagokionez, sarrerako hotz eta beroak, arrain zopa, legatza, bildotsa, tarta eta horrelako bazkarietan ohikoak diren edariak izanen dituzte. Bazkalondoren dantza



D.NAVARRA

**Leitza eta Doneztebe lotzen dituen NA-170 errepidean beste parea bat egin dute, Lotzabian inguruan. Izan ere berriki lur eroria gertatu zen inguru horretan. Duela urte pare bat moldatu zuten bi kilometroko errepide zatia, 3,3 milioi euroko aurrekontuarekin.**

egiteko aukera eskainiko dute Ramontxo ittundarraren doinuek, arratsaldeko 7ak arte. Izen ematea otsailaren 20a bitarte egiten ahal da, herri bakoitzeko delegatuari 25 euro ordainduta.

### Arte tailerra Elgorriagan

Elgorriagan eskultura eta pintura artistikorako tailerra eraikitzen ari da Alvaro Matxinbarrera artista. Iruñeko Otxikorte enpresa da lana egiten ari dena eta

behin akitutakoan, ikas-taroak, erakusketak eta gisakoak egingen dira tailer honetan.

Bertze aldetik, Elgorriagako bainuetxea egiteko lanak berriz ere subastara aterako dira hilabete honetan, alkate-

## SUNBILLA

# Bertso afaria egingen da Ulibeltza elkartearen martxoaren 13an

Martxoaren 13an, larunbatarekin, bertso afaria antolatu du Ulibeltza elkarteak. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak izanen dira bertan. Gaueko 9:00etan hasiko dira afaltzen honako menu honekin: arrain zopa, legatza satsan, txuleta, postrea, kafea, kopa eta purua. Txartelak 25 eurotan salgai izanen dira martxoaren 7a bitarte Fonda Ostatuan, Itturburu ostatuan, Marisol janaridendan eta Bustitz ostatuan. Afal ondotik, noski, bere saioa egingen dute Lizaso eta Egañak.

ak jakinarazi duenez. Lehenbiziko enkantera hamar enpresa aurkeztu ziren, baina aurrekontuaren hasierako prezioa baxuegia zela eta, ez zuen inork hartu. Horregatik, orain %23 igoko da hasierako prezioa.

616 513 497  
P  
i  
t  
t  
i  
ESKABAZIOAK  
C/Azuelu  
31010 DONEZTEBE (NAFARRA)

## APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**BELARRA**  
OSTATUA  
JATETXEA  
Amezia karrika  
DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 03 06

LANA

# Soldatzen eta gidatzen ikasteko ikastaroak antolatu ditu INEMek Doneztebeko bulegoan

Kamioi edo autobuseko gida-baimenak ateratzen ahal dira, bertzeak bertze

## ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuaren Enplegu Zerbitzuak Formakuntza eta Lan-munduratzeko Plangintza Nazionalak antolatzen dituen ikastaroetan izen emateko epea ireki du. Informazio gehiago nahi duenak edo izen eman nahi duenak Nafarroako enplegu bulegoetara jo behar du. Inguru honetan, Donezteben INEMek duen bulegoan eman behar da izena.

Guzira, Nafarroa osoan 279 ikastaro emanen dira Plangintza honen barnean lehenbiziko urte erdi honetan. Horietatik lau bertzerik ez dira Donezteben emanen. Ikastaroak doan emanen dira eta 16 urtetik goitiko langabetuei zuzendua dago. Izen emateko, Nortasun Agiriaren fotokopia, langabezi txartelaren fotokopia, hezkuntza mailaren fotokopia eta bertze zenbait agiri aurkeztu behar dira. Xehetasun gehiago 948 450309 te-



Artxibokoa

**Autobusen gida-baimena ateratzeko aukera eskaintzen du ikastaroak.**

lefono zenbakian eskaintzen ahal da.

Pertsona bakoitza ikastaro bakarrean apuntatzen ahal da eta bertze eskariak baztertu egiten dira. Ikastaroak emateko, ikastaro horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen dituen guttienerako ikasle kopurua izan behar da. Izen emateko epea, kopuru hori betetzen denean akautuko da. Ikas-

taro hauen bitartez langabetuei lan merkatuak eskatzen duen lanbide heziketa eman nahi zaie, lan horietan sarbidea emateko. Zehazki, Donezteben emanen diren lau ikastaroak honako hauek dira:

Egitura metaliko arinen soldatzaile ikastaroa otsaileko bigarren hamabostaldian hasiko da Elizondoko Institutuan, 16:00etatik

20:30etara. Bertan izen emateko Eskolera-tze Ziurtagiria aski da.

Kamioneta eta kamioi gidari izateko ikastaroa ere otsaileko bigarren hamabostaldian hasiko da Elkar autoeskolan, 8:00etatik 12:30etara. C1 edo kamioneta gida baimenaren ikastaroan parte hartzeko 18 urte beteak izatea aski da eta kamioierako gida baimena

ateratzeko 21 urte. Bi kasuetan Eskolera-tze Ziurtagiria eta B motako karneta, autoak gidatzeko, izatea eskatuko da. Behin aukeratuak izandakoan, araudiak agintzen dituen probak gainditu beharko dira.

Erremolkea duten kamionetak eta kamioiak gidatzeko baimena ateratzeko ikastaroa ere egingen da Elkar autoeskolan martxoaren 1etik aitzin, 8:00etatik 12:30etara. Kamioneten kasuan, 18 urte beteak eta B eta C1 gida-baimenak edukitzea eskatuko da. Kamioien kasuan, 21 urte beteak eta B eta C gida baimenak eduki beharko dira. Bi kasuetan eskolera-tze ziurtagiria eskatuko da.

Azkenik, autobus gidari baimena ateratzeko ikastaroa ere emanen da Elkar autoeskolan, maiatzaren 3tik aitzinera. Autoa gidatzeko baimena, eskolera-tze ziurtagiria izatea eta 21 urte beteak izatea eskatuko da.

**ola**  
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua

102 Meaka auzoa  
20304 IRUN  
Tel.: 943 623 130

udana  
salazneps

UNE-EN-ISO 9001  
IAC  
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADA  
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

LESACA



## NARBARTE



ARGAZKIA: NELI IANTZIK UTZIA

Emakumeen pala txapelketaren finala Mendillorriko trinketean. Behehian, Narbarteko pilotariak sariak jaso ondotik.

## Mendillorriko trinkete txapelketan herriko bi ahizpak bikain

Esther Iriarte txapeldun izan zen eta Maite Iriarte azpitxapeldun

### ttipi-ttapa

Nafarroako Teknikazio Zentroak joan den abenduan txapelketa bat antolatu zuen pilota modalitate ezberdinetan Mendillorriko trinketean. Berrikuntza bezala, emakumeak ere txapelketaren barnean sartu zituzten. Badirudi emakumeen artean pilota bultzatu nahi dutela eta oraingo honetan trinkete modalitatean izan da.

Emakumezko trinketeko pala txapelketan Lizarrako Susana eta Narbarteko Esther Iriarte txapeldun izan ziren eta Narbarteko Maite Iriarte eta Lizarrako Maite Ruiz azpitxapeldunak.

Ea segitzen duten leku ezberdinetan horrelako txapelketak antolatzen, baita frontoietan ere eta honen berri izanda neska eta emakume gehiago animatzen diren hurrengo txapelketetan parte hartzera.



## EHIZA

### Kontrapasako uso ehiza martxoaren 14a bitarte zabalik

#### ttipi-ttapa

Nafarroan usoa kontrapasan ehizatze-ko denboraldia martxoaren 14a bitartean irekia egonen da. Eguzietan izanen da kontrapasako usoa ehizatze-ko aukera, eguzkia ateratzen denetik gorde arte. Aurten onartuak diren 514 ehiza postuetan bakarrik ehizatzen ahalgo da eta bakar-bakarrik usoa dago onartua. Gehienez bi ehiztari egoten ahal dira postu bakoitzean eta ehiztari bakoitzak eguneko lau uso botatzen ahal ditu gehienez. Denboraldirako 3.000 usotan jarri dute muga, beraz, martxoaren 14a baino lehen ailegatzen bada kopuru horretara, orduan akautuko da denboraldia. 1999an 712 uso ehizatu ziren, 2000n bikoiztu egin zen kopurua 1.507 usotara eta 2001ean 1.560 uso hartu ziren. 2002an ehizatu zen kopuru handiena, 2.593 uso, baina joan den urtean 897 ale bertzerik ez ziren bota.

**B** BERBIZIAUN S.L.

Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errekifikadorak

Igantziako Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**ANSONEA** jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

gaztelu sol  
**iturgintza**

kalefakzioa • saneamendua • gasa  
© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

**GAZTANDEGIA**

**LIZUN** Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

## BERTIZARANA

# Oieregiko kontzejua hirigintza planaren aldaketaren kontra dago

Kirol hornidurarako zegoen lekuan industria jartzea ez du ontzat hartzen

## ttipi-ttapa

Oieregiko kontzejua ez du ontzat hartu Bertizaranako Udalak hartutako erabakia, hirigintza planean kirol hornikuntzarako zegoen lur eremua industria erabilerarako aldatu duena. Aitzineko ale batean aipatu genuen berri hau, inguru horretan Martikok gasolindegia eta nabe industrialak egiteko duen asmoa azalduz.

Oieregiko kontzejua, Legasa eta Narbarterekin batera Bertizarana osatzen dueneta tateko batek, hirigintza plangintza aldatzeko behin behineko onartutako espedientea gibelera botatzeko eskatu dio Bertizaranako Udalari, bortz alegazio zehatz aurkeztuz.

## INGURUMENAN ERAGIN KALTEGARRIA

Alde batetik, ingurumenean eragina izanzen duela uste du Oieregiko kontzejua, batez ere Bertizko Jaurerriko parke naturalean. 2001eko otsailean bailararen itxura hondatzen zuen enpresa baten instalazioaren kontra ere agertzen Oieregiko kontzejua. Bertizek urtero 60.000 bisitari erakartzen dituela azpimarratu du kontzejua eta mila metrora industrialdea jartzeak parkearen irudiari kalte handia egiten duela uste du.

Bertze alegazio ba-



ARTXIBOKOA

**Kirol eremuaren kokapen berriarekin bizilagunek errepidea pasatu beharko dutela eta kamioiak berriz ere herriguneetatik pasatzen hasiko direla uste du Oieregiko kontzejua.**

tean, Oieregiko kontzejua dio Hirigintza Planak bi industrialde aurrikusten dituela.

«LEGASAKO INDUSTRIALDERA LANTEGIAK EKARTZEKO EZ DA DEUS EGIN»

Legasan Arcelor lantegiaren industrialdea mantendu eta Oieregin bertze bat egin, enpresa tikiak eta artisauei zuzendua, beraz, ez da orain aztertzen ari diren proiekturako egokia. Oieregiko kontzejua ustez, Bertizaranako Udalak ez du deus egin Legasako industrialdera lantegiak ekartzeko. Arcelorrek lurra saldu omen du kamioientzat aparkaleku publikoa egiteko, beraz ez du uler-

tzen orain Arcelorrek lurrik ez saltzea. Edozein gisatara, saldu nahi ez badute, nahitaez desjabetzeko aukera ere badela gogorarazi du Oieregiko kontzejua.

**SORTUKO LIRATEKEEN LANPOSTUEI BURUZKO AZTERKETA**

Bertze aldetik, industrialdeak sortuko dituen lanpostuei buruzko hausnarketa ere egin du Oieregiko kontzejua. Egitasmoaren arabera 30 eta 57 lanpostuen artean sortuko lirateke, baina kontzejua Bertizaranako langabetuen kopurua, zer gisako lanpostuak sortuko diren eta etorkizunerako garantiak azterteko eskatu du.

Azkenik, kirol hornikuntzarako eremua hor egitearen erabakia, erabiltzaileen hurbiltasuna izan zela dio kontzejua.

**TRAFIKO ETA OINEZKOENTZAT ARAZOAK**

Legasako bizilagunek errepidea pasatu beharrik ez izateko pentsatu zen. Orain, ordea, kokapen berriarekin berriz ere trafiko arazoa sortuko litzateke Oieregiko kontzejua ustez. Onartuko balitz, bizilagunek errepidea pasatu beharko lukete eta kamioiak berriz ere herriguneetatik pasatzen hasiko zirela uste dute, erosoagoa izanzen baitzen gidariarentzat.

## ERRETIRATUAK

## Andaluziako Costa del Solera bidaiaren ondoren du Arkupeak elkarteak

ttipi-ttapa

Arkupeak elkarteak Andaluziako Costa del Solera bidai polita antolatu du martxoaren 22tik apirilaren 2ra, hamabi egun guzira.

Irteera martxoaren 22an egiten dute, 7:00etan Irunetik. Errepide nagusi ondoan dauden herrietako jendea hartuko du autobusak, baina baztandarrak Oronozera joan beharko dute eta leitza aldekoek Iruñera. Madrilgo errepideko 103. jaiztean bazkaldu ondoren, arratsan ailegatuko dira Almuradielera, afaldu eta lo egiteko. Martxoaren 23an Almuradielatik ateri eta Granadako Alhanbra bisitatu dute. Bazkaldu, afaldu eta lo Granadan bertan egiten dute. Biharamonean, Granadatik ateri eta Sevilla aldera joko dute, bertan bazkaldu, afaldu eta lo eginez. Martxoaren 25ean, gosalduta ondoren Sevilla bisitatu dute eta hotel berean bazkaldu. Arratsaldean, Isdabe aldera joko dute. Martxoaren 26tik 31ra egonen dira hotelen, pentsio osoan. Apirilaren 1ean Kordobara ateriko dira. Mezquita bisitatu ondoren bazkaldu egiten dute. Almuradiel aldera ateriko dira eta bertan afaldu eta lo egiten dute. Apirilaren 2an abiatuko dira bueltan, berriz ere 103. jaiztean bazkaldu eta itzuliko dira etxera.



# Osasuna

osasun gida · osasun gida · osasun gida

>>>>> Optikak  
>>>>> Hertz klinikak  
>>>>> Naturopatiak  
>>>>> Fisioterapeutak



Albisu **hertz** klinikak

Iker Albisu Altzagirre

Odontologia Medikua - Kpt. Zela 449

Ordu eskaera

9:00 - 13:00

15:00 - 19:30

☎ 948 631 631

Iparraidea 3 - 2.ezk

31780 Bera

## Clinica Dental

**Irurita - Rubio**

### ODONTOLOGIA

### ORTODONTZIA

**Doneztebe** 948 450 267

Rosa Seminario, 19-1 Esk

Dr. Jose Luis Irurita (KOL240)

Dr. Biotza Rubio (KOL241)

odontologia medikuak

Rx panoramikoak - periodontzia - kirurgia  
endodontzia - protesiak

ODONTOPEDIATRIA - PADI

ortopedia maxilarra - umeak eta helduak

**Leitza** 948 610 713

Manuel Lasarte, 7-2 Esk

FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO  
ZENTROA

**Karlos  
Alzugaray**  
FISIOTERAPEUTA

- ☞ Lan lestripuek
- ☞ Trafiko lestripuek
- ☞ Kirol lesioak
- ☞ Gilhar, artikulazio... minak
- ☞ Bixkortze arriak
- ☞ Bertze tratamenduak
- ☞ Masajeak
- ☞ Etkez etxeko laguntza

Itza, 20 • BERA  
Tfnoa: 948 63 01 87  
Mugikorra: 607 85 32 08



## FISIOETXEA

Ane Egizabal Llata

### FISIOTERAPEUTA

- Errehabilitazioa
- Osteopatia
- Kirol eta zirkulazio Masaia
- Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
- Etxez etxeko laguntza
  - Mutuak
  - Aseguruak
  - Partikularrak

Huete Gotzain 8. 3.C • LEITZA • Tfnoa: 948 510 730

## MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

### Txomin IRAZOKI Fisioterapeuta

Eztegara, 24 • BERA  
Parrokia, 5 • DONEZTEBE  
Tfnoa: 670 471 200



## Ostargi Optika

### OPTIKO OPTOMETRISTA

- Ikusmen azterketa orokorrak
- Lentillen adaptazioa
- Begietako tentsioaren kontrola
- Ikusmen terapiak
- 2-3 urteetatik aurrera hauren errebisioa

Bidasoa 8 • BERA • Tfnoa: 948 630 753

## MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

Diabetia • Aina • Zizareak • Lami azaleko alergia  
Buru mina • Oinen izerdia • Prostata, etab...

IKUSMENAREN  
BERRESKURATZEA

GIHARRE  
ARAZOAK

- Miopia
- Bista alferdua
- Estrobismoa
- Begi lasioak-kataraktak

- Bixkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara, Arratsaldez 2-7etara, Ordua eskatu

☎ 943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

# Osasuna

osasun gida · osasun gida · osasun gida

Zure publizitatea  
hilabetean behin  
sartzeko deitu

## 948 63 11 88

telefonora

kulturkari@euskalnet.net









# S. FCO. JAVIER

Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa

## ELIZONDO

Tfno. • Faxa: 948581808  
cpelizon@pnte.cfnavarra.es

Matrikulatzeko epea:  
otsailaren 26tik  
martxoaren 5era

ESKOLA  
PUBLIKOA  
AURRERANTZI!



FOTO MENA



BAZTAN BALLEKO UDALA

## ESKUARAZ BIZI ETA IKASI



Aurreinskripzioa: Otsailaren 26tik martxoaren 5era

© 948 452 448  
baztan@ikastola.net





**LEITZA**

**FLASH**

## Bizibide hobeago baten bila

Garai batean euskaldunak Ameriketara joaten ziren moduan, orain beste herrialdeetatik heldu dira Euskal Herrira

Mikel ILLARREGI

Jakin badakigu mi-grazio mugimenduak beti gertatu direla. Euskal Herrian ere, familia gehienetan aditu dugu bat edo beste Ameriketara joan izana. Orain, gero eta gehiago dira Amerika, Europa edota munduko beste edozein tokitatik hona etorritakoak. Garbi dago ez direla etortzen oporretan edo mundua ezagutzeko kapritxoak. Euren tokian bizi-baldintzak okertu zaizkie eta jakin badakite "beste mundu honetan hobeki bizi gara", nahiz hemen ere denetatik baden.

Jakinazue, hurrengo aleetan gizatalde hauen izenean, partaideren bat edo beste agertuko dela hemen.



**Mariana LOPEZ**  
29 urte  
Otavalo (Ekuador)

Duela 4 bat urte, 3 lagun etorri ziren hona Kolonbia, Venezuela eta Ekuadorretik, estatu espainiarra alde batetik bestera igaro ondotik.

### BIZIBIDE HOBEAGO BATEN BILA (1)

Orain bertan hogeitatu lagun bizi dira Leitza, pisu bakoitzean 6-7. Etortzen diren guztiak hasieran salmentan aritzen dira. Dena den "salmenta jaitsi da dextente, jende asko ari da, konpetentzia handia dago eta jendea pixkana ohituz joan da nobedegisa saltzen ziren produktuetara". Saltzaile ibiltari zirenean, furgonetan bizi ziren, materialaren artean lo eginez. Denborarekin, beste lanetan hasi dira, mendian batez ere.

Gizarte Zerbitzuaren bitartez, Mariana eta beste lagun bat pinta-tzen aritzen dira (gelak apaintzen, bernizatzen...), baina kontrata 9 hilabetekoa zen eta orain amaituko zaie.

Nekazaritzatik bizi den herrixka batean hazia da, animaliak eta lur-rak bazituzten. Gero inguru hartako hiri nagusira joan zen, Otavalora, eta jostun aritu zen. Hango diruak, Sucreak, dolarraren parean be-

hera egin zuen eta ego- era okertu zitzaien. "Pentsatu horietako lan batean, hilabetean 100 dolar irabazten duela gaur langile batek" dio.

Hemen bi urteko alaba du, Kelly, baina Ekuadorren badu zortzi urteko beste bat. Bere nahia da egiten duen lanekin "dirua aurreratu eta Ekuadorrerara" joatea. Han, denboraldi bat pasa eta gero "beste alabarekin hona itzuli, hemen ikas dezan".

Beste gauzen artean, paperen arazoak aipatzen digu. Bestetik, alaba haurtzaindegian dagoenez, euskaraz ikasten ari dela komentatzen du irripartsu. "Atzo Ekuadorren datuen aitarekin hitz egin zuen alabak telefonoz, eta euskarazko hitzak esaten zizkionez, bazueta gurasoek ez zuten deus ere ulertzen". Azkenik, "bihotz-bihotzez Leitza jendea eskertu" nahi duela esan digu "eskaini diguten laguntzagatik".

### Mendi astea

Otsaileko azken astean, mendi astea eginda. Asteazkenean hasita besteren artean Ama Dablam-i buruzko proiektzioa eskainiko da. Larunbatean Erakurri mendira gazteen ibilaldia eta igandean, Urbasa-Lizarragako mendatera zeharkaldia

### Zinema

Jada hasita dira zinema emanaldiak. Asteburu honetan ez da eman dirik Ihauterietako asteburua baita. Dena den, hurrengo asteburuan, Mexikoko Zapatistek eta Herriak eginitako ibilbidearen filma, "Caminites" eskainiko da.

### Bai Euskarari akordioa

Aurrerago zehatzago azalduko badugu ere, jakinarazi nahi da, otsaila eta ekaina bitartean, Bai Euskarari Akordioko prozesuari ekinen zaiola. Euskararekiko konpromisoa gauzatu nahi da Leitza elkar-te, komertziantek, enpresen... artean, eguneroko bizitzan euskararen erabilera indartzea, alegia. Honetarako "Ziurtagiria" banatuko da, baina hori lortzeko norberak eman beharreko pausoak hitzartu eta ziurtatu behar dira.



### Santa Ageda bezperan koplatan

Hona Santa Ageda bezperako saioa. Beste urtetan baino jende gehiago azaldu zen aurten, eta era berean aprobetxatu nahi izan zen "Maxurrenea herrintzat" aldarrikapenarekin bat egiteko honen aldeko koplak kantatuz, ohikoak direnekin batera.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Astelehenetik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara  
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50  
amaia@artekari.com

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxa: 948 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA  
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## GOIZUETA

# Iñoteen eromena otsailaren 22, 23, 24 eta 28an

Martxoaren 6an berriz, Kutsidazu bidea Ixabel antzezlanak ikusgai

## Esteban AROTZENA

Otsailaren 22, 23, 24 eta 28an izanen direla aurtengo ñoteak aspaldi badakite herritarrek, baita egun hauen barreneko ekitaldi garrantzitsuenak zein diren ere, Goizuetako historian festa honen lehen aztar-na denez geroztik, berdin-berdin ospatu baita, inolako etenik gabe gainera. Beraz, astelehenean, 23an, karnabalen protagonista nagusia den mozorro taldea atek ireki nahi dizkien baserrien ataritari ailegatu da egun osoan. Asteartean, herritarrek gozatuko dute mozorroen presentziarekin, goizean etxez etxeko eskean eta arratsaldean zahi-

dantzarekin. Festa borobiltzeko beste hainbat ekitaldi ere antolatu dira ñotetarako. Horrela, igande eguerdian Añorga eta Goizuetako pilotak eskolen arteko partidak jokatuko dira. Astelehenean 17:00etan, eskolako ikasleek eta aerobic-eko emakumeen taldeak osatzen duten konpartsa ibiliko da herrian. Dantzaldiei dagokien ez esan, igandean eta astelehenean Leire eta Itsasok joko dutela plazan, eta asteartean berriz, Trakets taldeak.

Azken urteotan hainbesteko protagonismoa hartu duen kontuen egunak, hilaren 28an, bere horretan jarraitzen du.



ARTXIBOKOA

Euskal Herria osoan barrena hainbeste emanaldi egin ondoren, Gorringo taldea Goizuetan izanen da martxoaren 6an. Ilunabarreko 8:00etan hasiko du taldeak «Kutsidazu bidea, Ixabel» lanaren antzezpena.

18:00etarako gure artean izanen da Iruñeko Igandea txaranga, eta mozorroek afaldu eta kontuak egindakoan, agurra emanen diete herritarrek karnabalei.

## Herriko Etxeko obrak

Herriko Etxeko obregatik Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzaren informazioaz zuzenketa egin beharrean gaude. Udal dependenzien obran 232.626 euro gastatu izan-



Iñauteriak iragartzeko eskolako kaldereroak izan genituen otsailaren 6an.

Iruñeak honen %70ari aplikatu dio dirulaguntza, 164.024 euro; eta gero, honen %70,4 subentzionatu

du, 115.473 euro. Gogorarazi obra guzia, Ganbara aretoa barnea, 319.000 euro gostatitzaiola herriari.

## ARESO

# Sutarako egurra etxeratzeko baimena eskatu beharko da

Arau hori betetzen ez bada isuna ordaindu beharko dela jakinarazi du Udalak

## Juana Mari SAIZAR

Alkatearen bandoak hau dio: edozein motako adar, egur edo zuhaitz eroriak, hau da, sutarako egurra, etxera ekarri baino lehen, Udaletxearen baimena eskatu beharko da. Arau hau betetzen ez bada

isuna jarriko da. Beste aldetik, berriz ere zaborra biltzeko moduak aipatu nahi dira. Zaborrontzi berdeak hondakin organikoak biltzen ditu, urdinak paper eta kartoia eta autobus parada ondoan dagoen ontziak beira. Zaindu de-

zagun ingurugiroa eta birziklatzeko kontzientzia pixkana-pixkana sartuz joan. Hau dena ongi egiten ez bada, zabor biltzaileek ez omen dituzte ontziak hustuko. Bolumen haundiko tresnak hilean behin biltzen direla gogorarazi.



Arxibokoa

Adarrak edo eroritako zuhaitzetik sutarako egurra hartzeko baimena eskatu beharko da udalean.

## EHNA

Otsailaren 14ean izan zen lehen aldiz EHNA tramitatzeko aukera Udaletxean. Hemen-

dik aurrera bi hilabetero egiteko aukera izanen da, padroiaren agiri, 3 argazki eta 15 euroekin.



## ARANO

# Telefono lineak eskas gelditu direla eta kezka sortu da herrian

Alkateak soldata jaso du lehen aldiz



Asteburu honetan ospatu dira ifñauteriak.

### Kontxi KLABER

Batek baino gehiagok azaldu dute beren kezka eta haserrea herrian telefono linea nahikorik ez daudela eta.

Lehen, herrian telefono publiko bat izaten genuen, plazan hain zuzen ere. Urte asko ez dira oraindik jendea etxean telefonoa jartzen hasi zela eta gaur gehienetan izango da. Herrian dauden etxe asko konpondu dira eta bertan jendea bizi da, gehienak telefonoa jartzen dute, noski, eta hortik dator lineak eskastea. Nonbait linea denak hartuak daude eta batzuk telefonorik gabe geratu dira. Arazoa ez da brometakoa izan ere ez dakigu aurrerantzean zer gertatuko den, baina linea gehiago behar dela garbi dago.

### Alkateak soldata jasoko du lehen aldiz

Aranoko alkateak urtearen hasieratik kontratuarekin lan egiten du eta joan den hilabete bukaeran udalak ordaindutako lehen soldata jaso du. Hau Nafarroako Gobernuak legeak agintzen duen bezala, diru laguntza hori aprobetxatu eta bide batez herriak atzeratuta daukan lan konkretu bat aurrera ateratzeko asmoarekin egin da. Iratze-lurren konbenioa orain da 40 bat urte sinatuak sekulako jarraipena eskatzen du eta hau aurrera eramanez nahi da.

**Ez utzi airean**  
 Rural Kutxak argituko du PAC-a zure ordeiz

Gure profesionalak eginen dizute 2004ko PAC deklarazioa baldintzarik hoberenetan, eta ez duzu ibili beharko paper-multzoarekin alde batera eta bestera.

Ez utzi airean eta joan zaitez zure Rural Kutxako bulegora. Irabazian aterako zara.



**NAFARROAKO  
RURAL KUTXA**

## BAZTAN

# Iruritako Dorrea moldatzea eskatu zaio Principe de Viana erakundeari

Udalaren ustez jauregia erortzeko arriskua dago ez bada konpontzen

## ttipi-ttapa

Iruritako Dorrea jau-regian moldaketa lanak egitea eskatu dio Balleko Etxeak Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamenduaren Principe de Viana erakundeari, urtarrilaren 30eko Gobernu Batzordean hartutako erabakiaren arabera. Zehazki, egitura moldatzea eta sendotzea eta teilatua berritzea eskatu zaio. Iruritako Dorrea egoera kaxkarrean dago. Alde batean gero eta haundiagoa egiten ari den arraila du eta teilatua ere arras hondatua dago. Lehenbailehen neurriak hartzen ez bada, jauregia erortzen ahal dela uste du Udalak. Gainera, Baztango ondarearentzat garrantzi handikoa da jauregia, balleko zaharrenekoak baita, Principe de Viana erakundeak berak duen katalogoaren arabera. Dorrea edo Jauregizarra, XV. mendekoa da eta 1496an, Nafarroako Erresuma-



ARGAZKIA: TOTU ITURZAETA

**Iruritako Dorreak gero eta haundiagoa egiten ari den arraildura du alde batean. Teilatuak ere konpondu beharra dauka.**

ko hamabi etxe zaharren artean sartua zegoen. Duela urte batzuk erosi zuen Balleko Udalak, Iruritako gizarte zebtrua egiten ari diren lur eremuarekin batera. Orduan 133.226 euroko inbertsioa egin zen. Balleko Udalak baliabide ekonomiko eskasak dituen, Dorrea jauregia

lehenbailehen moldatzea eskatu zaio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamenduko Principe de Viana erakundeari.

Gan den urtean, Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikoaren inaugurazioan, orduan alkate zen Patxi Oiarzabalek aipatu zuen Ba-

lleko Etxeak Iruritako Dorrearendako zuen egitasmoa. Arbaso baztandarrak zituen Javier Ziga margolariaren (1877-1960) lanak erakutsiko ziren jauregian, senideak horretarako prest baitzeuden. Ordurako Nafarroako Gobernuarekin solastu zuen Dorrea moldatzeko.

**Iñarbegiko errepidea moldatzeko 390.000 euro gastatuko dira**

## ttipi-ttapa

Udalak 390.666 euro gastatuko ditu Erratzuko Iñarbil eta Iñarbegiko bidea moldatzeko. Auzo hauetara ailegatzeko bide bakarra da eta arras hondatua dago. Bide nagusiaren 6,3 kilometro moldatuko dira eta Marimartineña baserrira sartzeko bertzeko 149 metro eta Nafarteka ingururako bertzeko 500 ere konponduko dira, Burlatako Macla Ingenieria enpresak egindako egitasmoaren arabera. Bidea eurien eraginez aunitz hondatzen da eta zati batzuetan %6tik goitiko maldak ditu. Bi ibilgailu gurutzatu ahal izateko lekuri ez du bideak eta hori moldatzen saiatuko dira. Lanen ematerakoan sei hilabeteko epea izanen da akitzeko. Zola sendotzeaz gain, urarendako kunetak egiten dira eta, lekuaren arabera, asfalto edo ormigoia emanen da.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostata  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte  
ELIZONDO  
© 948 581807 • 948 581853

**ORDOKI LIKOREAK**

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
ARIZKUN

**ERRETEGIA**

Parrilan egindako haragi eta arrainak

**ONASKA**

**ERRETEGIA**

Euskal sukaldaritza  
Arrain eta haragia brasan  
Bagordiko bidean • ELBETE  
© 948 45 20 88



## BAZTAN

# 81.000 euro bideratuko ditu Udalak oihanberritze lanetarako

Landaketak eta garbiketak egin, pistak ireki eta itxidurak kenduko dira

### ttipi-ttapa

Baztango Udalak 81.382 euro bideratuko ditu oihanberritze lanak egiteko, landaketak, basoberritzeen garbiketak, itxidurak kendu eta pistak ireki, bertzeak bertze. Lan hauek Amaiur, Erratzu, Elbete, Elizondo eta Irurita inguruetan egingen dira.

Neguko landaketa lanak eman eta berehala egingen dira. Lan hauek egiteko deialdia ireki du dagoeneko Udalak. Amaiurren, Eneko inguruko 3 Hektareatan bertako 3.750 haritz landare sartuko dira, baita lizarrak eta gereziondoak ere. Landareen inguruan tuboa jarriko dute, orkatzek kalterik ez egiteko. Antzabal inguruan, idortearengatik hazi ez diren landareak kendu eta berriak sartuko dira, zehazki 4.500 douglas izei. Bagordiko errepide bazterretan urkiak sartuko dira.

Udako garbiketari dagokionez, hamar leku ezberdinetan egingen di-



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Baztan Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleek Urpe elkartearen aitexi Joakinen erranetara erroskilak eginez ospatu zuten San Blas eguna.**

ra, 43 Hektarea hartuz. Lizartzun hektarea bat garbituko da, Enekon 3, Antzabalgo izei plantazioan 15 eta leku bereko hariztian 5 Hektarea. Landareak haztea laguntzeko garbiketak egingen dira Otsondoko lkatzatea inguruko 4,25 Hektareatan, Bagordiko lau lekutan eta errepide bazterrean, Larratzun 4 Hektareatan, Za-

pitorren 2 Hektareatan eta Erratzu eta Arizkun artean, Otxaskon, 5 Hektareatan.

Aitzineko kanpainen jarritako itxidurak ere kenduko dira, aziententzat eta pertsonentzat arriskutsuak izaten ahal direlako. Honela, Antsastegin, Lizartzuko larrerako bidean kenduko dira zerrakurak, baita Arizkungo gaz-

tain oihanberritzean eta Erratzuko Kantanea baserri inguruko 2.600 metro hesi kenduko dira.

### NEGUKO LEHEN SUTEA

Otsailaren 6an sua itzali behar izan zuten Oronoz Mugairiko suhiltzaileek eta mendizainek Lizartzu eta Iruingoborda inguruan. Sua nahita emandakoa izan omen zen.

## FLASH

### Udalak ongi kudeatu ditu aurrekontuak

Baztango Udalak ongi kudeatu ditu bere aurrekontuak, baina zenbait arlotan hobetzen ahal da, Kontu Ganbarak 2002. urteari buruz egindako txostenaren arabera. Urte horretan 7,8 milioi euro gastatu zituen Udalak eta 8,8 milioiko diru sarrerak izan zituen.

### Alemaniko gazteak Lekarozko aterpean

Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak, Alemaniako Hessen hiriko erakunde batekin batera, aire libre eta abenturako ikastaroa antolatu du Lekarozko gazte aterpean otsailaren 25etik 28ra.

### Lekarozko ikastetxea

Juan Bautista Lukin hondar aita kaputxinoa Lekarozko ikastetxe zaharretik gan zela urtea bete denean, ikastetxea saldu gabe dago. Bien bitartean, ikastetxea eta eliza hondatzen ari dira. Erosketan interesatuak dauden bi inmobiliaria ba omen daude, bat Iruñekoa eta bertzea Zaragozako, baina oraindik ez da salmenta gauzatu.



**asnap.me**  
asesoramiento de la persona y pequeñas empresas

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

<ul style="list-style-type: none"> <li>• LANGILE AUTONOMOAK</li> <li>- Garrantziak</li> <li>- Elektrizitatea</li> <li>- Eraikuntza</li> <li>- Igehseroak...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>- Kontabilitateak</li> <li>- IVA eta IRPF</li> <li>- Garrantziak asesoramentua</li> <li>- Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>- Sozietateen inpostuak</li> <li>- Errenta aitortpenak</li> </ul>
--	--

• NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK

• ENPRESA GUZIAK

<p><b>DONOSTIA</b>                  Irua Semerik, 4. Solera                  Tfno: 948 411833 Tfno/Fax: 948 411418                  web:asnap@asnap.me</p>	<p><b>ELIZONDO</b>                  Sarriaga, 51 Solera                  Tfno/Fax: 948 580 586                  alizanda@asnap.me</p>	<p><b>LEIOA</b>                  Sarriaga, 1 Solera                  Tfno: 948 262208 Tfno/Fax: 948 262194                  garpela@asnap.me</p>
--	---	--

**BURKAITZEA**

ostatu erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.  
 © 948 599280 • URDAZUBI

*Eskisaroi jatetxea*

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
**ELIZONDO**



**OSTATU - JATETXEA**

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

## SENPERE

# Pierre Lagrenade eskola emailea eta musikariak agur erran dio Senpereri

Mozorrotzeko edo xingar eta arroltze galdetzeko denboraldia da

## Franc DOLOSOR

Bertzeak laguntzeko lan handia egin ondoren bere bizi osoan, Pierre Lagrenade zendu da otsail hastapenean. Eskola emaile izateaz gain, elkarte aintzietan lan egin zuen, korala eta klinkan bereziki. Emak-Hor taldearekin harreman hestua izan zuen luzaz Lagrenadek. Oroitzapen ona atxikiko dute beti talde hauetan ibili diren ehunka senpenterrek. Girixtinoek ere aintz zor diote luzaz elizako organo jolea izan baitzen. Ehunka elizkizun animatu ditu eta erran ditake kasik senpenter guzietan loturak izan dituela noizbait Lagrenade zenak.

## Ihauteriak

Ihauteriak asteburu



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

## Senperrealdeko hautetsiak haurtzaindegi berriaren inaugurazioan.

huntan ospatuko dira herrian. Ortziralean 7.30etan, Aizpea Leizaola donostiarra, eta Udako Euskal Unibertsitateko zuzendari izen-

datu berriak, mintzaldi bat eskainiko du ihauterietaz Oxtikenean. Biharamunean, egun handia izanen da joko olimpiako gaiaren in-

guruan. Besta karrikan eta Ibarrungo Inharrean iraganen da. Gaueko 9.30etan, Zipotzeroren kontzertua izanen da Oxtikenean.

## Akitaniako lurralde bozak

F.D.

UMP alderdiak 1998az geroz ezker anitzaren esku den Akitaniako gobernua berreskuratu nahi du martxoko lurralde bozen ondotik. Eskuina prest da eta kanpaina handizki hasi zuen otsailaren 7an Jean-Pierre Raffarin lehen ministroa Baionan izan baitzen. Euskara, euskal laborantza, eta ekonomia laguntzearen alde mintzatu zen lehen ministroa bainan ez zuen xehetasunik eman. Bertzalde, euskal departamenduaren gaia aipatu gabe, Iparraldearen geroa Pirineo-Atlantikoetan, Akitanian eta Frantziaren baitan izanen dela segurtatu zuen Raffarinnek.

Lehen ministroaren ondoren, Alain Juppé ere Baionan egon zen. UMPko presidentearentzat lehen ekitaldi politikoa izan zen justiziak kondenatu ondoren.

Inungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Eximiniak
Angoluak	Elizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardakoa' Mazoza  
Zahar antzekoa Txapeanua

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK

## Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

## Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko S.A. Pol. Zalaia, s/n, 31780 Bera, Navarra  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com



**AZKAIN**

## Kulki elkarteak eta Herriko Etxeak elgar kudeatuko dute kirol ostatua

Beñat Etxeberri, Kulki elkarteko lehendakariarekin elkarrizketa

Angela eta Xamo

**Ttipi-ttapa: Urtarrilaren 16an konbentziorne bat izenpetu duzue Herriko etxearekin "kirol ostatua"ri buruz.**

**Beñat Etxeberri:** Erran nahi du oraindik goiti, Kulki elkarteak eta herriko etxeak elgar kudeatuko dute kirol ostatua. Gela hori Azkaingo elkarte guzieren idekia gelditzen da, baita ere partikularieri. Beraz baliatu nahi duten elkarte guzietan Kulkiren bidez pasatu beharko dute. Hobe da aintzinetik erreserbatzea, jakinez maiz hartua dela. Jakin behar da hiru gela badirela behean, eta horiek ere baliatzen ahal dira.

**Ttipi-ttapa: Eta partikular batentzat...**

**Beñat Etxeberri:** Kulkik elkarten beharrak bakarrik bere gain hartzen ditu. Norbaitek nahi badu "Kirol Ostatua" erreserbatu, herriko etxearen egin beharko dio galdera, ez bada janean.



ARGAZKIA: ANGELA

**Kirol Ostatua Azkaingo elkarte guzieren idekia gelditzen da.**

ko hartua; jakinez azken puntu hori eztabaiatu behar dugula, ez baitugu oraindik finkatu nola eta nori eman lehenetasuna.

**Ttipi-ttapa: Bertze proiektu batzu heldu den urterako..**

**Beñat Etxeberri :** Bai, ez gira hortan geldituko. Kulki elkarteak dinamismo berri bat sorrazi nahi duelako herrian, bizpahiru gertakizun bultzatuko ditu aurt.

ten. Hala nola Telethon eta Elkarten besta bere gain hartuko ditu. Eta erran behar da abisu orrialde bat «Kulki Infos» ateratzen dugula atero. Horren bidez, herritarrek jakiten ahaliko dute zer proposatu izanen zaien gure herrian kultur eta kirol mailan. Asteburuko kirol emaitzak ere ateratzen dira. «Kulki infos» herriko denda guzietan atsematen da, asteazkenetan.

**Xirika: Astekari berri bat**

Gazte komunikabide berri bat sortu da Euskal Herrian. 24 orriko astekari horren 0 zenbakia atera da. Proiektu hori lau gazteren fruitua da, haien artean azkaingar bat, Goizeder Taberna. Haien artean, euskarazko aldizkari hori «gazteentzateztabaida eta komunikazioaren tresna izan behar da». Egunon marrazkidun astekari berri honi.

**FLASH**

**Ihauteriak**

Altxa lili kultur elkarteak oroitarazten dauku ihauteriak ospatzen direla gure herrian heldu den larunbatean. Goizeko 10:00etan hasiko dira, hartzaren ibilaldiarekin, eta hitz ordu nagusia 15:30etan finkatua da, herriko plazan. Horra hemen egunaren egitaraua: ibilaldia herriko karraketan, Pantzarren auzia, Krakada Bil Tokin parte hartu dutenentzat, Pantzarren erretzea, mutxikoak, eta bukatzeko, usaiako poitea plazako ostatuan.

**Bollendorf ihauterietan!**

Urtero egiten den bezala, otsailaren 20tik 28a arte bidai bat antolatua da Bollendorf-era. Azkaingar hango ihauteriak ezagutu eta parte hartzea joan dira. Aurten, 25 urte egiten du Azkain eta Bollendorf birazkatzea sortu dela. Hori ospatzeko eta momentu berean hango ihauterien 50 urte betetzeendako, zeremonia berezi bat izanen da. Urtarrilaren 31a, dantzaldi mozorroto bat antolatua izan da Bil Tokin. 80 lagun eta kide urbidu da afari baten inguruan azken xehetasunak aipatzeko.

**ZOANSA**

**SALMENTA**  
MARKA GUZIEKON KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA (Sarrera Beratik)

**bentamiguel**  
denda, jantziak eta osasuna

Ongi zaindutako sukaldaritzak  
Menuak aukeran

Taldea  
Ikurrak  
Jantziak  
Undategia

Ibardingo Lepoa • ☎ 948 631209

**LARRALDEA**  
**SAGAROTEGIA**

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • **LEKAROZ**  
☎ 948 452121

## SARA

# Adinekoek urteko bazkaria egin zuten Herriko Etxearen kontura Omordian

Dantza taldekoak Cauteret-en eskiatzen izan dira

## Xan eta Saski

Urte guziz bezala, negu partean Herriko Etxeak bazkaria pagatu zuen Sarako hirugarren adineko jendeei. 97 lagun bildu ziren otsailaren 7an Omordiako gelan. Sukaldeko lanak Zuraidoko Bidegainen egin zuten eta herriko kontseilari batzuk zerbitzatu zuten. Iduriz gomituak aski kontent ziren eta bazkal ondoan kantuz aritu ziren.

## Dantza taldea eskiatzen

Neguan hitzordu gutti izaki, otsailaren lehen asteburua aprobetxatu

zuen dantza taldeak ateraldi bat egiteko Cauteret herrira eskiatzeko. 16 urte baino gehiago dituzten kide guztiak gomituak ziren. Orotara 27 lagun bildu ziren. Orain urte andana batez geroztik egiten den ateraldi hori, elkarteak pagatzen du udako ikus-taldietan parte hartzen duten dantzariak eskertzeko. Denbora ederra ukan zuten eta denak beltzaturik etorri ziren, minik hartu gabe.

## Errugbia

Saratarren multzoa, bigarren mailan, urte baino orekatuagoa da.



Joaneko matxa guztiak jokatu eta, ezin daiteke erran nortzuk kalifikatuko diren. Ziburu baizik bertze bost taldeak, hala nola Arrangoitze, Azkain, Hossegor, Pomarez eta Sara, denek final erdietarako txartela eskuratzen ahal dute. Momentuan Sara bigarren dugu, hiru garai-penekin eta bi galtzeekin, azken bi matxetan galdu baitzuten Animatean Arrangoitzeren aurka 3 eta 6, eta irabazi Ziburun 8 eta 14. Hala ere saratarrentzat



ARGAZKIA: SASKI

Adinekoek gustora bazkaldu zuten Omordian.


kalifikatzea nahiko zaila izanen da, itzultzeko matxetan hiru aldiz kan-

poan jokatuko baitute eta bakarrik bi aldiz etxean.

**tipi ttapa**  
© 948 63 11 88

**HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA**  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL 0559542519

**ARMUA**  
**Jatetxea**  
Zugarramurdiko karretera 3. Km  
© 948 599 131 - URDAZUBI



## BAZTAN

### ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

## ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



## SORTZEAK

**Jon Pagola Lopez**, Berakoa, urtarrilaren 27an.

**Aimar Igartzabal Jaunsaras**, Lesakakoa, urtarrilaren 24an.

**Paula Odriozola Goizueta**, Lesakakoa, urtarrilaren 30ean.

**Cecilia Adin Urtasun**, Elizondokoa, uztailaren 27an.

**Aitana Azkarraga Goñi**, Iruritikoa, urtarrilaren 24an.

**Idoia Elizondo Barrenetxe**, Lekarozkoa, urtarrilaren 26an.

**Saioa Iriarte Ibarrola**, Doneztebekoa, urtarrilaren 24an.

**Ainara Otxandorena Pikabea**, Elgorriagakoa, urtarrilaren 26an.

**Janire Telletxea Irazoki**, Etxalarkoa, abenduaren 14ean

**Manex Leza Iturbide**, Etxalarkoa, urtarrilaren 21ean.

**Iraia Martinikorena Ariztimuño**, Leizakoa, otsailaren 10ean.

**Yaiza Gonzalez Gamio**, Gaztelukoa, urtarrilaren 13an.

**Erramun Cinq**, Sarakoa, urtarrilaren 30ean.

**Robert Elorri**, Sarakoa, urtarrilaren 25ean.

**Mari Jose Parreira Borreicho**, Legasakoa, urtarrilaren 8an.

**Iban Alduntzin Azkarate**, Leizakoa, otsailaren 5ean.

## HERIOTZAK

**Juan Bautista Marizkurrena Telletxea**, Ezkurrakoa, urtarrilaren 25ean, 70 urte.

**Maria Asuncion Lasarte Fernandez**, Berakoa, urtarrilaren 29an, 84 urte.

**Antonio Menta Irigoien**, Arizkungoa, urtarrilaren 28an, 83 urte.

**Santiago Aleman Juanikotena**, Elizondokoa, otsailaren 5ean, 78 urte.

**Jose M<sup>a</sup> Burlada Matxikote**, Arantzakoa, urtarrilaren 14an, 76 urte.

**Florencio Fagoaga Rodriguez**, Berakoa, urtarrilaren 16an, 84 urte.

**Juan Jose Azkarraga Irigoien**, Iruritikoa, urtarrilaren 19an, 74 urte.

**Jose Zabaleta Onsalo**, Leizakoa, urtarrilaren 20an, 80 urte.

**M<sup>a</sup> Pilar Saenz de Santamaria**, Donamariakoa, urtarrilaren 28an, 89 urte.

**Pedro Loperena Urtxipia**, Zubietakoa, urtarrilaren 27an, 79 urte.

**Petra Martin Martin**, Lesakakoa, urtarrilaren 29an, 72 urte.

**Jose Landa Arbelaitz**, Lesakakoa, otsailaren 1ean, 83 urte.

**Esteban Altzuguren Agirre**, Berakoa, otsailaren 5ean, 79 urte.

**M<sup>a</sup> De Los Santos Garmendia Iturrioz**, Elizondokoa, otsailaren 8an, 79 urte.

**Fermin Perez Guilarte**, Berakoa, otsailaren 8an, 90 urte.

**Jean Gaston Chretien**, Sarakoa, urtarrilaren 30ean.



## EZKONTZAK

Ez dugu datu berrik.



### Esteban ALTZUGUREN AGIRRE

Beran, 2004ko otsailaren 5ean

*Gure gau ilunak  
argituko dituen izarra,  
buruan bueltaka dabilen  
irriaren oihartzunaren islada.  
Zu gure bihotzean beti altxatuko  
dugun Esteban maitea izanen zara.*

**Alkeberetarrak**



### Esteban ALTZUGUREN AGIRRE

Beran, 2004ko otsailaren 5ean

*Nondik ateriko dugu indarra?  
Nondik aterako dugu kemena?  
udazkeneko usoen antzera joan zara  
orain gaude ezin kontsolaturik  
bihotzean dugun pena  
San Estebanen altzoan  
har ezazu atsedena*

**Bere familia**



### Santiago ALEMAN JUANIKOTENA

2004ko otsailaren 5ean

*Gizon umila eta apala,  
famili on baten aita  
toki guzietan estimatua  
zinen bezala izanta  
aurrerantzean triste xamarra  
izanen da zure falta  
baina hala ere segiko dugu  
lehen bezala lotuta  
gure bihotzan xoko batean  
beti egonen zara ta.*

**Familia eta lagunak**



**Ane BERGARA** *Berako futbolaria*

# «Erreginaren kopa jokatu ahal izateko lehen lau taldeen artean saikatzeko saiatuko gara»

- Otsailaren 3an 17 urte bete ditu Ane Bergara futbolari beratarrak. Emakumeen futbol Superligan ari da Lagunak taldean.
- Mutilekin batera Hendaian hasi zen futboleant. Gero, lau urte egin ditu Gure Txokoan, urtebete Kontxako hondartzan, bertze urte bat Gipuzkoako Ligan (txapelketa izan zen Berako taldea) eta bertze bat Maila Nazionalean.
- Lagunak taldeak Superligan egin duen lehenbiziko gola berak sartu zuen eta nolabait historian sartu dela erraten ahal da: «Kontent nago, baina golak ez zuen irabazteko balio izan».

## Aitor AROTZENA

Herriko Gure Txokoa taldearekin Gipuzkoa eta inguruko futbol zelaietan aritzetik, Barañaingo Lagunak taldearekin estatu osoko zelai onenetan, Bilboko Athletic izazko txapelketa naren edo Ronaldinharen Rayo Vallecanoren kontra Superligan aritzera pasatu da denboraldi honetan Ane Bergara, Berako aurrelari bizkorra. Lagunak taldearentzat ere lehendabiziko denboraldia da Espainiako maila nagusia eta hasierako helburua, kategoria mantentzea, lortuxea dute dagoeneko. «Hamalau talderen artean zazpigarren gaude eta hasierako helburua aldatu beharko dugu. Txapelketa Europa sartzen da eta lau lehenbizikoek Erreginaren Kopa jokatzen dute Hor sartzeko borrokatuko dugu!» dio Anek. Bertze talde batzuetan arituak ziren bi jokalarientzat ezik, bertze guzientzat maila berria izan arren, ongi egokitu direla erakusten dute emaitzek. Anerentzat ere aldaketa handia izan da. «Taldeen

«Nesken futbolariek ez du mutilenarekin antzik: hemen ez dugu sosik kobratzen, baina trukean, Lagunak taldean bidai ero-soak eta hotel onak izaten ditugu»

*kalitatean, jokatze moduan eta abiaduran, denean nabari da saltoa. Gure Txokoa astean bi entrenamendu egiten genituen eta hemen lau entrenamendu eta, kanpoan aritzen baldin bagara, larunbatean bidaia dugu».*

## EUSKADI, NAFARROA ETA ESPAINIAKO SELEKZIOEKIN KONBOKATUA

Aldaketara egokitzen lagundu egin dio aitzinetik bertze herritar bat izatea Lagunak taldean, Mirian Erkizia atzelaria. «Hasieran beti berekin ibiltzen nintzen eta beterana baten ondoan lasaiago egoten zara, lagungarria da. Orain konfidantza hartu dut eta ber-

*tzeekin ere gustora egoten naiz». Bere eguneroko bizimodu ere dexente aldatu da. «Orain gehiago bidaiatzen dut eta lehen etxean egoten nintzen familiarekin, baina orain Iruñean nago erresidentzia batean, jende berria ezagutzen... aunitz aldatu da, bai».*

Ane Bergarak ttiki-ttikitatik badaki zer den selekzio ezberdinekin aritzea. Euskadiko 17 urtez beheitikoarekin aritu zen 15 urte bertzerik ez zituenean eta orain Nafarroako eta Espainiako selekzioarekin aritu da. «17 urtez beheitiko selekzioarekin txapelketa jokatzen nuen Malagan eta gero Madril, 19 urtez beheitiko Espainiako selekzioarekin. Otsailaren 21ean berriz Nafarroako selekzioarekin arituko naiz eta apirilean Espainiak badu txapelketa bat, baina ez dakit konbokatuko nauten». Bortz gol sartuak ditu aurtun eta 17 urterekin, bertze talde handiagoren batean aritzeko ametsa ez du baztertzeko: «Ni gustora nago Iruñean eta hemen segitzeko itxaropenekin, baina aukera beti hor dago!».



**PILOTA**

## Paxaka txapelketaren finala martxoaren 6an jokatu da

Otsailaren 28an finalerdiak izanen dira jokoan

A.A.

Laxoa elkarteak bosgarren aldiz antolatu duen Paxaka txapelketa azken txanpan sartua da. Lehendabiziko fasean hamar hirukote aritu dira. Horien artean, lau lehenbizikoak zuzenean sartzen dira finalerdietan. Hau idazterakoan, postu guztiak zehaztuak ez baldin badaude ere, lau lehenbizikoak izanen diren hirukoteak honako hauek dira: Oitzko Mendiola anaiak eta Fagoaga (iazko txapelkunak); Iruiritako Urrutia anaiak eta Elizaintzin (azpitxapelkunak); Etxenike, Unanua eta Urtasun (ganden urtean hirugarren izan ziren) eta Etxenike, Iñarrea eta Garate. Finalerdiak otsailaren



ARGAZKIA: AITOR A.

**Txapelketako jardunaldi bat Lesakako pilotalekuan jokatu da aurten.**

28an jokatu dira eta finala martxoaren 6an Iruiritako Aranabia pilotalekuan.

Aurten zenbait berrikuntza izan ditu txapelketak. Puntuazioari da-

gokionez, hiru puntu banatu dira partida guzietan. Galtzaileak sei joku eginez gero puntu bat lortzen zuen eta irabazleak bi. Galtzailea sei jokora ailegatzen ez

zenez, hiru puntuak irabazlearentzat ziren. Bertalde, paxaka bertze lekuetan ezagutzera emateko helburuarekin, jardunaldi bat Lesakan jokatu da.

**FLASH**

### Herri kirol formakuntza ikastaroa

Herri kirol formakuntzarako oinarriko ikastaroa antolatu dute Nafarroako Herri Kirol Federazioak eta Sakanako Mankomunitateak. Ikastaro hauek hiru helburu nagusi dituzte, alde batetik herri kirol taldeekin harremanak izanen duten lagunak elkartzea, bertetik oinarriko ideiak argitzea, hau da, zer nolako kirolak ditugun, nola egin entrenamenduak eta gisako kontuak eta azkenik, begiraleen arteko harremanak lantzea. Ikastaroa otsailaren 21ean, larunbatarekin egingen da Sakanako Mankomunitateak Larkuntzan duen egoitzan goizeko 9:00etatik 11:00etara eta 11:30etatik 14:00etara eta Arbizuko kiroldegian 16:00etatik 19:00etara. Izen ematea Sakanako Mankomunitatean (948 464866) edo Nafarroako Herri Kirol Federazioan, 948 450900 telefonora deituz egiten ahal da.

## Donato Larretxea eta Xabier Mindegia Urrezko Aizkolarien finalean

Otsailaren 29an jokatu da Azpeitian

Donato Larretxeak eta Xabier Mindegia lortu zuten otsailaren 8an Urrezko Aizkolarien Txapelketako finala jokatzeko txartela, Nazabal eta Mindegia neurtu ziren, eta Etxarrikoak bere burua gehiegi behartu gabe irabazi zuen. Nazabal eta Larretxearen arteko deman ere Etxarrikoak izan zen onena. Mindegia eta Erdoziaren arteko lehia ere oso estua izan zen, baina garaipena Etxa-

rrikoak eraman zuen. Saio bakoitzeko irabazleak puntu bat jasotzen zuten, eta horren bukeran hiruna berdinduta zeuden. Garbi zegoen, beraz txanda libreko azken saioak erabakiko zuela saioa. Aurretik biko bakoitzak bi 60 ontzako moztu behar zuten, baina txanda enborretik enborra egin behar zuten. Mindegia eta Larretxea nagusitu

ziren, azkeneko saioan bezalaxe. Horiek horrela, Larretxeak eta Mindegia finala jokatzeko txartela bereganatu dute. Bertze finalerdian, Espejor



Artxibokoa

**Mindegia gatzetasunak eta Larretxearen esperimentziak finalerako txartela eman die.**

jokatzea zuten aste hondar honetan Ugarteburu-Arrospidek eta Peñagarikano eta Txapartegik. Finala otsailaren 29an jokatu da Azpeitian.

2004/02/19 • 368. zbk.

# AGENDA

egunez  
egun

## INAUTERIAK

### AZKAIN

Otsailaren 21ean.  
Xehetasunak 25. orrian.

### ARIZKUN

Otsailaren 24an Hartzaren etorrera.

### BERA

Otsailaren 21etik 23ra.  
Xehetasunak 9. orrian.

### DONEZTEBE

Otsailaren 20tik 22ra.  
Xehetasunak 14. orrian.

### ELIZONDO

Otsailaren 23 eta 24an.

### ETXALAR

Otsailaren 23 eta 24an.  
Xehetasunak 11. orrian.

### GOIZUETA

Otsailaren 22, 23, 24 eta 28an.  
Xehetasunak 24. orrian.

### LESAKA

Otsailaren 21etik 24ra.  
Xehetasunak 10. orrian.

### SARA

Otsailaren 21 eta 22an.  
Xehetasunak 26. orrian.

### SENPERE

Otsailaren 21ean.  
Xehetasunak 24. orrian.

## MENDI ATERALDIAK

### DONEZTEBE

Otsailaren 28an  
Formigalera bidaia antolatuta du Erreka Kirol elkarteak. Izen emateko Nafarroako Kutxaren bulegora joan behar da otsailaren 20a baino lehen.

### LEITZA

Otsailaren 28an Erakurri mendira gazteen ibilaldia.  
Otsailaren 29an Urbasa-Lizarragako mendatara zeharkaldia.

## TELEBISTAKO TXOKOA



# JOKOA SOLAS SAIOA ESKOZIATIK

## Munduko sokatira txapelketa ttipi-ttapa telebistan

Seigarren denboraldia betetzen ari da aurtien Jokoa Solas kirol saioa. Urte hauetan, eskualdeko kirol talde eta kirolarien emaitzak, irudiak, elkarrizketak eta nondik norakoak pantailaratu ditu astelehenero. Tartean, Lesakako Beti Gazte sokatira taldeak urte hauetan eskuratu dituen txapelen eta parte hartu duen lehiaketan berri eman du ttipi-ttapa telebistaren kirol saioak. Munduko goma gaineko txapelketan lehen ere parte hartu du Lesakako taldeak, baina lehendabiziko aldian izanen da ttipi-ttapa bertatik bertara segituko duena txapelketa hau, Aitor Arotzena kazetariaren bitartez. Eskoziako Glas-

gow hirian otsailaren 19an eta 20an klub arteko txapelketan parte hartuko dute Beti Gazteko tiralariek. Otsailaren 21ean eta 22an, berriz, aste hondar honetan Euskal Herriko txapelketan lortutako emaitzaren arabera, nazioarteko txapelketan parte hartzeko eskubidea izanen dute, edo ez. Talde ezberdinetako tiralariekin elkarrizketak, ikusleen arteko giroa, tiraldien saltxa, sari emateen emozioa... heldu den asteko Jokoa Solas saioan izanen duzue guzi horren berri. Kirol eta txapelketaz gain, Eskoziako gizartearen berri ere izanen duzue, ortziraleko Erreportaian.

## DISKAK



«Lanari mus»

## UFESTUEK

UFESTUEK, 2004

Auschwitzeko kontzentrazio eremuko sarreran jarri zegoen mezua ageri da Baztango Ufestuek taldearen diska berriaren azalean: Arbeit Macht Frei. Hau da: Lanak libre eginen zaituzte. Esaldi bixia, ate hortik sartzen ziren aunitz eta aunitz gehiago ez zirela aterako kontuan hartuz. Erranmolde horri buelta eman eta «Lanari Mus» izena jarri diote bere bigarren lanari erratzuarrek. Xabi Ospital kitarra eta aho-tsak, Joseba Etxandier baxua eta koroak eta J.I. Etxamendi kitarra eta koroak osatzen dute Ufestuek taldea. Hamabi kantuzen eta bizi bildu dituzte diskan: Izenburua ematen duen Lanari Mus kantua erekin batera, Okaka, Azken Mohikanoa, Wana Panpalin, Gazte-xea orain, Illegalak Enea, Torturik ez!, Neguko palazioetan, Amets, Ez ito Itoitz, El Ultrafin eta Katuak.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(Urtarrilaren 30etik otsailaren 6ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**  
(19 kilo): 36,50 € (-2,00 €)

**Zerri gizona**  
0,863 € kilo. (+0,028)

**Zerramak:**  
0,44 € Kg/bizirik. (+0,02)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,22 (=)

**1.koa** 3,10 (=)  
**2.koa** 2,97 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,27 (=)  
**1.koa** 3,17 (=)  
**2.koa** 3,04 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 239,00 (+5,31)  
idixkoak 241,00 (+6,00)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 182,00 (=)  
idixkoak 206,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,90/2,96  
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,10/ 5,40  
8-10 kilokoak: 4,00 / 4,50



## AGENDA egunez egun

### JAKIN BEHARREKOAK

# Ikusmena eta eskola

Gure inguruari buruzko informazioaren %80 ikusmenaren bidez ailegatzen zaigula kontuan hartzen badugu, ikasketa prozesuan ikusmenak daukan garrantziaz jabetzen ahal gara. Zenbait ikerketen arabera, 4 eskola-porrotetik 3 ikusmen arazoekin lotuak egon daitezke.

Eskola-porroten gibelean ikusmen arazo hauek egon daitezke:

- begietako optikan akatsak (arazo optikoak).

- Begibiko ikusmenen aldaketak (bi begiek batera modu koordinatuak erabiltzean aldaketak).

- Begien mugikortasun eskasa edo mugatua.

- Konbergentzia sisteman (ikusmen eremuaren aukeraketa) aldaketak eta egokitzea (distantzia ezberdinetako enfo-

kea).

- Begia-eskua koordintatzeko orduan arazoak (lateralitatea/direkzionalitatea/dislexia).

- Ikusmen pertzeptibo arazoak (formaren bereizkuntza, ikusmen memoria, etab...).

- Kolorearen ikusmenean aldaketak (daltonismoa, etab...).

#### ZER ULERTZEN DUGU ONGI IKUSTEAREKIN?

Ongi ikustea ez da bakarrik argi eta garbi ikustea. Begi-zorroztasun ona duen neska edo mutiko batek ikusmen antolaketan aldaketak izaten ahal



ditu, bere eskola errendimenduan eragina izan dezaketena.


Aldaketa hauek trebetasun multzo bati erantzuten diote, ha-

la nola, begia-eskua koordinazio egoki bati, begiak modu zehatz baten mugitzeko ahalmenari, enfoke azkarra eta malgua erabiltzeko aukerari edo distantziak arazorik gabe kalkulatzeari, adibidez.

Azkenik, ongi ikustea begiak eskaintzen duen informazioa modu eraginkorrean prozesatu ahal izatea ere bada, inguruak eskatzen digunari erantzun egokia eman ahal izateko.

- *Aunitz hurbiltzen da marratzeko, irakurtzeko edo idazteko?*
- *Telebistara aunitz hurbiltzen da?*
- *Telebista ikusterakoan burua alde batera egiten du?*
- *Irakurtzerakoan, testua behatzarekin segitzen du?*
- *Hurbiletik egin beharreko gauzetara denbora gutti eskaintzen dio?*
- *Arreta mantentzea kostatzen zaio?*
- *Begiak aunitz igurtzen ditu?*
- *Letren norabidea aldatzen du?*
- *Bere eskuina eta bere ezkerrekin zera idazten ez du ongi bereizten?*
- *Urrunera begiratzen duenean begiak erdi ixten ditu?*
- *Buruko minaz edo begietako aznabiaz kezka du?*
- *Edozein erantzun bati zerkoa bada, ikusmen arazoaren bat izan daiteke.*

### LIBURUAK



Manila Konexioa

Jon ARRETXE

ELKAR, 2003

Gasteizen giroturiko eleberri beltz batekin datorkigu Jon Arretxe, lehendik ere bai bere bidaia-kronikekin bai gazteen bizimoduari buruzko kontakizunekin arrakasta handia lortutako egilea. Betiko dohainak aurkituko dizkiogu hemen ere Arretxeri: idazkera argi eta zuzena, erritmo bizia, umore etengabea. Horietaz gainera, pertsonaia bakoitzari dagozkion hizkera eta ezaugarriak sortzeko abilezia eta argumetuaren hari guztiak maisuki jos-

teko trebezia aitortu behar da. Esperimentatu egin du Jon Arretxek nobela honetan: «Une bakoitzean nahi dudana idazteko zoriona daukat, eta oraingoan gogoia etorri zait zerbait berria probatzeko». Berria den hori detektibe liburu bat izan da, Manila konexioa. «Nobela beltza da, baina parodia antzekoa da, ez da serioa». Sherlock Holmes-ena baino Torrenteren itxura duen Simon Artabe eta Etxebe laguntzailea dira detektibeak, protagonistak.

### IKASTAROAK

#### BERA

**Otsailaren 27tik ekaina bitarte** Ahots teknikak eta Munduko abestiak ikastaroa antolatu dute Berako Abesbatzak eta Lamixine Taldeak, Berako Kultur Batzordearen laguntzaz. Ortziralero 19:00etatik 21:00etara Isidoro fagoaga Musika Eskolan. Izen ematea 012 telefonon.

**Martxoaren 2tik ekainaren 22ra** Irakurri eta Idatzitako tailerra antolatu du Uxua emakume taldeak Kultur Batzordearen laguntzarekin. Asteartero, Jesusen Bihotza ikastetxean 19:00etatik 20:00etara.

### SOLASALDIAK

#### ARANTZA

**Otsailaren 28an** Alizia Sagaseta Bortzerrietako gizarte langileak «Gizarte Zerbitzuak Bortzerrietako jubilatuentzat» solasaldia eskainiko du 20:00etan Zahar Txokon.

**Martxoaren 6an** Iñaki Perurenak bere jubilazioaren aurrikuspina egingen du solasaldi bat eskeiniz 20:00etan Zahar Txokon.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### 112 TFNORA. DEITU

#### Otsailaren 16tik 22ra

Bera (A. Lasarte), Igantzi, Sunbilla, Elizondo (F. Garcia Mata), Leizta (M.T. Plaza).

#### Otsailaren 23tik 29ra

Bera (A. Lasaga), Doneztebe (M. Etxarte), Elizondo (R. Gezuraga), Leizta (O. Erbiti) eta Goizueta.

#### Martxoaren 1etik 7ra

Lesaka (M. Marin), Ituren, Irurita, Leizta (A. Gimeno).

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**LEGASA.** Pisua salgai. Aukera ona. ☎ 948 450027.

**ETXALAR.** 85 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean. Garajearekin edo garaje gabe salgai. ☎ 948 635 388 edo 610 533926.

**BERA.** Pisua salgai. Hiru logela, bi komuna, kalefakzioarekin eta trasteroarekin. ☎ 687 337028 (18:00etatik aitzin).

**BAZTAN.** 100 m<sup>2</sup>ko borda salgai. 3.800.000 pezeta. ☎ 948 124541.

**LESAKA.** Pisua salgai. 4 logela, jangela, sukaldea, bi komuna. Denak kanpoalde-ramaten du. ☎ 676 122670.

### ETXEBIZITZAK

#### 102 Erosi

**BAZTAN.** Pisu ekonomikoa erosiko nuke. ☎ 639 526865 (10:00etatik 22:00etara).

**BERA.** Pisua erosiko nuke. ☎ 605 453499.

**BERA.** Pisua erosi nahi dut. ☎ 650 219120.

**Etxea, baserria, borda edo lur eremua** erosiko genuke. ☎ 636 113246.

**LEITZA.** Bigarren eskuko pisua erosiko nuke. ☎ 660 777886 (17:00- 22:00).

**Etxea, pisua, baserria, borda edo lur eremua** saldu nahi baduzu... ☎ 676 907968. Diskrezio osoa.

### ETXEBIZITZAK

#### 103 Errentan eman

**URDAZUBI.** Apartamentua errentan ematen da. ☎ 948 599140.

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartu

**BERA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 626 852937.

**BERA.** Pisua hartuko nuke errentan. ☎ 948 630287.

## ADOS

- **BERA.** -Terrenoak erosi nahi dira.
- Pisu bat erosi nahi da.
- **DONEZTEBE.** - Santa Luzia plazan lokal komertzialak salgai.
- 114 m<sup>2</sup>ko pisu bat salgai. Berria.
- **ELIZONDO.** - Terreno bat erosi nahi da.
- **LESAKA.** - Baserri pare bat salgai.

**BAZTAN-BIDASOAN:** terreno, pisu, baserri eta bordak erosten dira. Eskura ordaintzen da.

948 451 841 / 607 978 656

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 109 Errentan eman

**DONEZTEBE.** 180m<sup>2</sup>ko pabilioia errentan eman edo salduko nuke. Estreinatua gabe eta bere eskapatearekin, Aparan industrialdean. ☎ 666 837228.

**BERA.** Bulegorako prestatutako lokala alokatzen da Iturlandeta karrikan. ☎ 670 428143.

### LURRAK/ORUBEAK

#### 112 Saldu

**BAZTAN.** 5.000m<sup>2</sup> kolur eremua salgai Zigan, etxebizitza egiteko baimenarekin. 5 milioi pezeta. ☎ 666 837228.

### LANA

#### 301 Eskariak

**Klinika laguntzailea** eskaintzen da, beharra duten adinekoak edo haurrak zaintzeko. Esperientziarekin. ☎ 690 167449.

**Neska euskaldun batek** umeak zainduko lituzke Iruñean. ☎ 948 237031.

**Neska eskaintzen da** interna edo externa modura lan egiteko. Adinekoak zaintzen esperientzia badut. ☎ 680 799047.

**Neska eskaintzen da** garbiketa lanak edo adinekoak zaintzeko. ☎ 626 852937.

**Lehen Hezkuntzan diplo-**



### LESAKA

- Herrigunetik 800 metrora dagoen etxea salgai
- Garajea, behe-itiko solairua 51 m<sup>2</sup> erabilgarriak
- Beheko solairua, 107 m<sup>2</sup> erabilgarriak
- Bigarren solairua, 113 m<sup>2</sup> erabilgarriak
- Tximeneta, berogailu zentrala eta lorategia.
- Ekipatua eta mobleztatua.

☎ 948 637281 (denda orduetan)

**matutako** neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko edo haurrak zaintzeko. ☎ 679631869.

**BERA. Emakume batek** lan eginen luke etxeak garbitzen. ☎ 948 630287.

### LANA

#### 302 Eskaintzak

**BERA. Ibardinen egunerolan egiteko** neska behar da. ☎ 948 220618.

**FRANTSESA** jakin dezala. ☎ 948 630734.

**IRUÑA. Pasteleria batek obradorean** lan egiteko neska bat behar da. ☎ 948 220618.

**DONOSTIA. Emakume bat** behar da etxeko lanak egiteko. ☎ 943 428750 (Begoñia).

**Gidaria.** Nafarroako Gobernurako eta Udaletxetarako plaza libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Mekanikoa** ibilgailuen mantimendurako. Nafarroako Gobernua plaza libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Harreragilea-telefonista.** Nafarroako Gobernurako eta

## ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

Udaletxetarako. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Ezinduak.** Nafarroako Gobernurako eta Udaletxetarako plaza libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.



**Administrari laguntzailea.** Nafarroako Gobernurako plaza libreak eta Udaletxetarako plaza libreak: Galar, Berriozar, Fitero, Burlata, Lizarrara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.** 202 plaza libre DBH, LH eta hizkuntza eskolarako. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Haur Hezkuntza** plaza libreak ikastetxe publiko eta haurtzaindegietan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Zaintzailea.** Nafarroako Gobernua 16 plaza libre. Informazioa doan. ☎ 948 199596.





**Basozaina, lorezaina.** Nafarroako Gobernua eta Udal-letxetan plaza libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.  
**Suhiltzailea.** Lanean laister hasteko, lan baldintza bikainak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**MOTORRA**  
**501 Salerosketak**

**Nissan Patrol** Top Line autoa salgai, NA-Z matrikuladuna, egoera onean. ☎ 948 630050.

**Autorentzat suspentsioa,** amortiguadore eta muelle deportiboak salgai. 260 euro. Panasonic CD kargadorea, 8 CDkoa salgai, 120 euro. ☎ 686803311 (arratsalde).

**Renault Megane 1.9D** gorria salgai, berri-berria dago. NA-4858-AS, 140.000 km. ☎ 687 035129.

**Bobinak garraiatzeko trailerra** salgai. ☎ 600 903466.

**Citroen Saxo VTS** salgai. 100 zaldi. 15 pulgadako llantak, 3 urte. 43.500 km. 7.500 euro. ☎ 943 620280 (Gozon).

**Ford Maverick** autoa salgai. Egoera onean. ☎ 610 202717.

**Honda NSR** motoa salgai, 125 cckoa. Oso egoera one-

**L n l z l t z**

<b>L N ESK INTZ</b>	<b>L N ESK INTZ</b>
<b>GI I K</b>	<b>H E G I L E K</b>
N f r k g m u t v i t x t n l n s t u l r k.	TELEF N Z I N K N f r k g m n l n s t u l r k.
<b>MEK NIK I K</b>	<b>EL I K</b>
N f r k g m u t v i t x t n l n s t u l r k.	N f r k g m u t v i t x t n l n s t u l r k.
<b>r s t z t z. Inf r m z h n.</b>	
<b>1</b>	<b>5</b>

**GANIX**  
**Tailerra**  
 Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA  
**IBILGAILUEN MEKANIKA**  
**ETA ELEKTRIZITATEA**  
**FIAT Zerbitzua**

**MENDAUR MOTOR**  
 ☎ 948 450333 • DONEZTEBE  
**Bigarren eskuko kotxeak:**  
 Opel Calibra, Mitsubishi Montero 5 atekoa, Frontera TD 3 ate, Clio Diesel, Opel Tigra, Seat Toledo TDI, Terrano 3 ate, Frontera Sport gasolina SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**BOAN**  
**TAILERRA**  
**AUTOEN MEKANIKA**  
**ETA ELEKTRIZITATEA**  
 ☎ 948 63 06 23 • BERA

**SAMPI ARAGON**  
**ZOANSA**  
 Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu. Eskura ordaintzen dugu  
 ☎ 948450354 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

an. ☎ 670 982729.  
**Suzuki Vitara 1.9 TD** beltza

**BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA**

Sukaldean erabilitako olioien bilketa egunak

**2004ko martxoaren 4an**

Lesaka .....9etatik 12etara  
 Igantzi .....13:00etan  
 Arantza .....14:00ak arte

☎ 948 635 254 - Etxalar

urte. 9.700 euro ☎ 661 262568 - 627 457446.

**ANIMALIAK**  
**602 Salerosketak**

**Hispanier eta cocker arrazetako** nahasketa duten zakurkumeak salgai. Beltzak. ☎ 677 594892.

**15 ardi salgai** Beran. Umartzeko punttuan. ☎ 636 520627 (Gabriel).

**Lau artzain zakurkume** salgai, labriak. ☎ 948 450492.

**Hamar ardien** subentzioak salgai. ☎ 948 634077.

**DENETARIK**  
**701 Galdu-aurkituak**

**Giltzak aurkitu dira** Bera-ko Altzate karrikan. 8 giltza inguru. Joan Azaleara.  
**Citroen auto baten giltzak**

eta baita etxekoak ere aurkitu dira Lizuniagako bidean. ☎ 948 631188.

**DENETARIK**  
**702 Salerosketak**

**Lasto enpaketatua eta bolar bolak siloetan** salgai. ☎ 948 631098 (arratsetan).

**Haurrendako silleta** salgai (kotxea + silleta). Arrue markakoa, estreinatu gabea. ☎ 948 630413.

**Igeltseritzako puntalak** salgai. ☎ 600 902863.

**DENETARIK**  
**703 Bertzelakoak**

**Ileapaindegia montatzeko mobleak** salgai. Sekadera, burua garbitzekoa, bi ispilu eta bi kadira. ☎ 948 599158.

Argazki soila: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,27€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.


Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



**DANIEL ERNESTO QUESADA GONZALEZ** etxalartarrak 11 urte beteko ditu otsailaren 26an. Zorionak bere gurasoen partetik, aunitz maite dutelako.



**MANEX URRUTIA** azpikueta-rrak 4 urtebeteko ditu otsailaren 20an. Aunitz urtez eskolako partetik eta pasatu ongi egun ttun-ttun egunean.



**MAITE ARANBILLET GALTZAGORRI** sunbil-darrak 8 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**ZORIONAK PITXITXI** aunitz urtez. Zorionak familia osoaren partetik eta bereziki Janireren partetik.



**EIDER PIKABEA** beratarrak 11 urte bete ditu otsailaren 14an. Zorionak Joseba, atta, ama eta Estazioko familiaren partetik.



**IKER IRIARTE ALTUGARAI** lesakarrak 4 urte eginen ditu otsailaren 15ean. Aunitz urtez Irati, atta eta amaren partetik.



Elizondoko **NAGORE IRIGOIEN**



etxalartarrak **SARA SALABERRIA LARRALDEK** otsailaren 11n eta 24an eginen dituzte 10 urte. Zorionak Ugaitz eta Izaroren partetik.



Zorionak Lesakako **IKER** eta **IONENTZAT**, otsailaren 6an eta 27an 7 urte betetzen dutelako. Ongi pasa eguna!



Berako **ASIER GOIA DEL MORAL**ek 7 urte eginen ditu otsailaren 28an. Aunitz urtez denon partetik. Aupa bixirindulari!



**IMANOL MARIEZKURRENA SANSINENA** aur-tiztarrek 4 urte bete ditu otsailaren 16an. Zorionak famili guztien eta bereziki Alazneren partetik. Muxu bat.

**NORBAIT ZORIONTEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,27 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA




**IZARO ETA ANDONI IRIBARREN INDABURU** etxalartarrak 9 eta 5 urte beteko dituzte otsailaren 26 eta 21ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Erratzuko **JOXEFINA REKARTEK** eta **LEIRE IRIGOIENEK** urteak beteko dituzte otsailaren 18 eta 26an. Zorionak bere kuadrillaren partetik eta inautetan besta egingo dugu gure txokoan. Aupa Erratzuko lep ei -ak!



**ERRATZUKO** bi ahizpa pendeja hauek urteak betetzen dituzte otsailaren 16 eta 18an. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko partetik.



“Zure begiendako,  
jar zaitez esku onetan”

**KIRURGIA:**

Miopia  
Astigmatismo  
Hipermetropia  
Bista nekatua

Zuen poztasuna da  
gure garantiarik onena



Donibane Lohitzuneko Poliklinika:  
0033 559 513 144

**San Juan de Luz  
laser**



# IKASTOLA rat

AMA! ATTA!  
APUNTU NAZAZUE



aurematrikulazioa: otsailaren 26tik  
martxoaren 5a arte.

**Tantirumairu**  
(948 637 308)

**Labiaga**  
(948 630 172)



## ORDOKI ALTZARIAK

**ESTILO UGARIKO MOBLEAK**

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA




ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

# Irakaskuntza publikoa 2004/05

Kalitatea aukera ezazu haien etorkizunerako



## NAFARROAKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOAK ESKAINTZEN DU

- 270 ikastetxe, Nafarroa osoan hedatuta.
- Goi mailako prestakuntza duten eta etengabe prestatzen ari diren irakasle taldeak.
- Hizkuntza eredu guztiak
- Norberari egokitutako erantzuna eta jarraipena.
- Giza heziketa eta prestakuntza zientifikoa.

### 2004/05 IKASTURTERAKO AURREINSKRIPZIOA

**HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA:**  
OTSAILAREN 26TIK MARTXOAREN 3ERA

**DBH:**  
MARTXOAREN 22-26 BITARTEAN

**LOGSE BAKILERGOA ETA ERDI MAILAKO L.H.:**  
APRILAREN 26TIK  
MAYATZAREN 7RA

**GOI MAILAKO L.H.:**  
EGUAINAREN 1-11 BITARTEAN

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI BADUZU, DEI EZAZU 848 42 89 22 / 848 42 66 17 TELEFONOETARA, EDOTA JO EZAZU HEZKUNTZA DEPARTAMENTURA (SANTO DOMINGO KALEA, Z/G IRUÑEA)

[www.pnte.cfnavarra.es](http://www.pnte.cfnavarra.es)



Nafarroako  
Gobernua